



## **AITA SAN IGNAZIOREN BIZITZA LABURRA**

**Agustin Kardaberaz**

Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).  
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazIgnazio.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**AZPEITIKO  
ERRI TXITEZ NOBLEAREN  
GLORIA PAREGABEAK  
edo  
AITA SAN IGNAZIOREN  
BIZITZA LABURRA**

**Jesusen Konpañiako  
Aita Agustin Kardaberaz  
beneragarriak eskribitua**

BEAR DAN BAIMENAREKIN

TOLOSAN.  
Franzisko Mugerzaren moldiztegian.  
1901-garren urtean.



A. M. J H S

D. G.

## AZPEITIKO ERRI TXITEZ NOBLEAREN GLORIA PAREGABEAK

Aita San Ignazioren Bizitza miragarria asi baño len, Azpeitiako Erriak Santuagatik dituen zeruko erregaliak kontatu nai ditut. Era bitan dira oiek. Batzuek Ignazioren bizitzako Santidadeak, besteak Ignazioren Etxe santu onek eman diozkanak. Biak argiro esan nai ditut: eta Euskaldunak oiek ondo jakitea txit nai det. Ditzazko erririk munduan ikusi bada, guzien artean bat, eta alde askotatik bakar señalatua, Azpeitia da. Onek bere seme batean, beste Errik ez bezelako, eta esan al baño andiago diran ditzak beregan ikusten ditu.

### ERRI NOBLE ONEN ZERUKO PRIBILEJIOAK

*Lenbizikoa.*— Munduko beste erritan non ikusten da, Azpeitiko Festa, ta prozesio solemne baten antzekorik? Ignazio bere semea, bere egunean, da lenengo graziaren Ponte edo Parrokiatik Azpeitia guziak urteoro triunfo añ gloriosoan, alegrizko gure antziñakoen Ezpata-dantzarekin ateratzen du, bere kaleak paseatu, ta Erri guztia onratu, ta santifikatzaera.

*Bigarren Pribilejioa.*— Munduan Azpeitian baizik non ikusten da biaramoneko, ta bigarrenik eztuen triunfo berria? Ignazio bere seme glorioso, ta Kapitan bitoriosea errespeto andiko Kabildo biak alako Prozesio ederrean, antziñako Mosketeria galantarekin Parrokiatik erriz kanpora, ta bere jaiotetxe onetara ekarten dute: ta emengo Eleiza berrian solemnidade guziarekin Meza santuan kantatu, ta Parrokiara biurtzen dute.

*Iragarren Pribilejioa.*— Azpeitian ezpada non bestetan ikusten da zeruko mirari au? Ignazio bere Semearen jatorrizko, edo jaiotetxe anziñako guziz Noblea osorik, ta onrarik altuenean dagoen bezala ikustea? Jainkoaren Probidenzia ezkutatuak Ignaziori, ta Azpeitiari fabore au egin dio: eta nola berak Gizatasuna Ama Birjiñaren sabelean, artu zuen lekua Nazaretoko Etxe dibinoa, orañ Loretoko Ama Birjiñaren Etxea milagro

osorik gorde izan duen; ala Loiolako Ignazioren Etxe au beti gorde izan du. Beste Santuen Etxeren bat edo beste erakusten dirade. Baña non Azpeitiko Loiola bezalako glorian, Santuario edo zeru bizi bat egiñik, eta goitik bera Etxe guzia mirariz apaindurik?

*Laugarren Pribilejioa.*— Anziñetako Gaztelu zar edo Torre, gure Provinzian famatuak urratu, bota, edo desegin ziran: Loiolako Etxe au Ignazientzat Jainkoak, orañ dagoen bezala gorde du, ta erregalia andiak: Erriz kanpora, ez Errian, ta ez Errikoai Etxe bat ere kendu gabe, Loiolako bere lurrean, Eleizarik ederrena, ta Kolejio erreala, Etxe santuaren ondoan, ta Seminarioa beste aldean, nai bezala, edo lasai guzia jasotzeko. Au ere Pribilejio bakarra da.

Onek edo ark patu ona, edo zeruko izarra duela, esan oi da: Igrazioren zeruko faboreetan egiaz au ikusten da; eta Santua Jainkozko patu onekin lurrean jaio, ta zerura igo zan. Erroman Santua ill zanean zeruko izarra gorputz gañean agertu ziran. Baña zer milagro? Ignazio Izarraizpean, edo Izarren mendipe onetan jaio bazan lurrerako da zerurako Ignazio jaio zanean, onen obira, aingeruen musikarekin zeruko izarra jetxi ziran. Ignazioren suerte, ta izar onaren patu santua edo Pribilejioa da au.

*Seigarren Pribilejioa.*— Zeruko joia txitez estimagarria da Loiolako Etxe au, eta alde onetatik Azpeitiak duen gloria; goitik bera santifikatua dago guzia: goien da bean Santisimoa, edo Jaun dibinoaren prezentsia erreala adoratzan da: eta Etxe bakar onetan zortzi Aldare ederrak marabilla andiaz gaur ikusten dira. Jainkoak bere gloriaren Jarleku, edo Trono eskojitua Ignazio egin zuen, eta onen jaiotetxea modu askotan glorifikatu nai izan zuen. Nere Euskaldunak: gauza ziertoa da Loiolako Etxe onetan Aita San Ignazio jaio zala. Baña non? Erdiko bizitzan, edo anziñako Oratorioaren ondoan: Kapitan glorioso, Erri edo Eleizako Patroi San Sebastian, Loiolan dan alajarik preziosoena, San Luis, ta San Estanislarekin bere Aldarean dagoen gelan Ignazio jaio zan. Goiko bizitzan gela txiki asko ziran: ta gauza jakiña da, Ignazio soldadu bizarroa Panplonan eritu, eta Etxe onetara ekarri zutenean, goiko bizitzan, da orañ Kapillan erdiko Aldarea dagoen leku, edo gelan, sendatu artean egon zala. Eta emen gloria andiagoak.

Goiko gela orretan Ignazio gaxorik zegoela, Jesu Kristoren, Ama Birjiñaren, da Santuen Bizitza miragarriak irakurri, ta Espiritu dibinoak bere biotz prestua argitu ta berotu zion, ta osoro beretu zuen. Emen San Pedro bere adiskide, zeruko Medikua bisitatzera etorri, ta fabore orrekin osasuna eman zion. 2.<sup>a</sup> Emen Ama Santisima bere Ignazio erregalo dibinoaz betetzera, ta Semerik estimatuena bezala, bere mantupear betiko



artzera amore onez etorri zitzaion. 3.<sup>a</sup> Emen Ignaziok bere biotza Jaunari betiko eman zionean, deabrua arrabiaz beterik, ariñ da igeska bezala irten, da leioko bidriera urratu omen zuen. 4.<sup>a</sup> Emen A. Joan Bautista Santiago, pobreen ongille, erri oietan ondo ezagunak latinez atera zituen berso eder dobotoak, eta marabilla oiek guztiak esaten zituztenak oi zeuden: eta Kapillako sapaiean gure egunetaraño egon ziran. Dotore D. Agustin de Agirre, ondo famatu, nere adiskide estimatuak, ziranak txikitatik memoriak artu ta gero esan oi zituen. Prodigiozko pribilejio oiek non bestetan ikusi dira? Azpeitiaren da Probinzia guztiaren onra andikoak dira.

Azpeitiaren pribilejio andia izan zan Ignazio eta San Franzisku Borjak biarretan baster oiek bisitatzea Ignazio onara beñ Panplonatik, te gero Paristik: Borja santua beñ Erromatik ta gero Oñatitik Jainkoak ekarri zituen. Ignazio Gazteluan eriturik kuratzera onara ekarri zuten: eta gero medikuen, da lagun santuen erreguak emen sendatzera berriz ekarri zuten. Lenengoan: zeruko esan diran mirariakin bere burua santifikatzera, edo Santu izaten asitzera: bigarreanean, Azpeitia eta Azpeitikoak zeruko ejemplo ta dotriñarekin guzien animak santifikatzera. Ori gero bere lekuan esango da.

Santu Borja andi edo Duke santua bi bider onara etorri zan. Beñ Erroman Kardenal egin nai zutelako, Aita San Ignazio bere Jeneralaren konsejuz gure bazter edo menditarte oietara iges, ondo ariñ da pozik Loiolan sartu arteraño ibilli zanean. Españako Anditasun guziaz azturik bere zeruko sagraduan bezala Etxe onetan sartu ta pozaren pozez biotzeko deseorik bizienakin, bere Aita San Ignazio jaio zan ditzazko gelaz bereala galdetu zuen. Emen bere burua lurrera bota, ta auzpez etziñik, luzaro Jainkoa adoratu, ta alabatu zuen, ta begiak negar gozo ugarizko iturri bi egiñik, lurrari muñ egiñaz biotz guztiko esker amorosoak eman ziozkan; zeren mundu biak bere oñpean, ta orietako animak bere biotzean guztiak salbatzeko bere kontura zeuzkan zeruko Jigante, Ignazio paregabea gela artan jaio edo lurrean agertu zan. Autoreak diote pauso deboto onetan, Santu Borjak zorioneko gela orretan Aldare bat egitea txit nai zuela. Egin etzan; baña orduan Santuak nai zuena, nik orañ nekeztzobadere, San Sebastianen Aldare berria nere ditxa andiaz egin det.

Santu Borja, ta D. Joan bere Seme santua Erromatik onara etortzeko, Aita San Ignaziok bere aide laztan Aita Antonio Araoz laguntzat eman zien: emen anziñako Oratorio esan oi danean debozio guziaz Santua komulgatu zan, da Aita Araozek Oñatiko Madalenara eraman zuen Santu Borjaren mirari bigarrenik eztuenak an ikusi ziran. Madalena leku eder

agiri bat da: eta Santuak prodigiozko zeru bat egin zuen. Munduko Palazioak utzi, ta etxe umill bat beretzat jasotzeko, an Duke Santua peontzan, edo arria eta karea karreatzen, neke ta izerdi andiak in ikusi zan. An lurrak maneatzeko idi bat elbarritu, ta Santu Borja andia bere burua beste idiarekin uztartu, ta goldeatzen ikusi zan. O zeruko mirari ikusgarria! Non sekulan gizonen artean onelako umildadezko ejenplorik gogoratu zaio? Santu Borjari bai, ta besteri ez. Orren sarian zeruko fabore, eta erregalo dibinoak an artu zituen. Urte artan, Gauna zeritzan Obispo Jaun bat Duke Santua ordenatzera berariaz Oñatira etorri zan: da Trinidadeko denboretan, iru egunean ordendu zan, da Meza esateko Abustu artean prestatu zan. Bigarren aldian San Franzisko Borja bere Seme maitearekin Oñatitik onara Loiolako bere Aitaren Etxe au, ta bere burua onratzera etorri zan. Emen zeruko argi bero guzia bere espirituari irazeki, ta Meza berria Abustuaren lenenean eman zuen, da D. Joan bere seme predestinatuari Meza berrian, Aitak semeari komunioa eman zion, Etxe santuko pintura ederrean ikusten dan bezala. Santuak egun artan usatu zuen kalitza emengo Aldarean bertan erakusten da: eta Bergaran bere arreba santak Meza berrirako Santuari egin zion Kasulla ederra: gauza zierto jakiña da, bere lenengo Meza solemnea gero jubileo andiarekin an kantatu, Sermoia egin, da ezin kontatu al Komunio eman zituela. Bederatzietan Meza asi, eta ordu batean Santuak akabatu zuen: ditzazko Bergara erri guziz Nobleak Santu Borjaren mirari gogoengarriak bere onrarako oi ditu.

Azpeitian Aita S. Ignaziok eman zituen pobreza umillaren ejenplak, ta aren Dotriña, ta Sermoietakoa konbersio milagrosoak aditu, ta Borja andi umilla Aitaren gisa, Azpeitian, da erri oietan bere alforjarekin eskean Dotriña erakusten ibilli zan. Santuak ala nai ta A. Araoz Sermoiakin asi zan: gero Santa Borja bera emengo txiki ta andiak arriturik eta negarrez aditu zutela, ta debozioz beterik ziotela: Duke santua, Duke santua: Probinzia oietan, Oñatin ta Mondragoi, Bergara, Azkoiti, Azpeiti, eta Erri nagusi guzietan prodigio andiak animetan egiten ibilli zan: eta orregatik euskaldunen Apostoluaren izen glorioso eman zioten. Onela Santu Borjak Azpeitia, ta Etxe au San Ignazio Erroman bizi zala, onratu zituen. Ignazio, ta Borja santuaz gañera, zenbat beste justu santu Etxe santu onetara etorri dira? Ta zenbat pekatari galdu, penitentzia, ta konfesioan, infernuko bidea utzi, ta zeruko biziera berria gogotik artzera Santuario onetara etorri diran, Jainkoak daki, ta bestek ez.

D. Joan Borja orduan estudiante gaztea zan, da bere Aita maiteari pauso guzietan al egiñaz jarraitzen zion. Onen gañean urte antan Santu Borjak zeruko erregalo, ta mirarizko rebelazio bat ikusi, edo izandu zuen.



Orazioan zegoela, bere emazte zana, edo D.<sup>a</sup> Leonor santa gloria andiz beterik agertu zitzaion: eta ango berri on askoren artean, esan zion: bien seme estimatu D. Joan ori zerurako señalatu, edo eskojitua zala: eta Aita-ren Seme santua nola zan, bere amaren bisita, ta berrion ori negar gozo-en artean urturik, kontatu zion. Jainkozko D. Joan au D.<sup>a</sup> Lorenza Loiola, Etxe onetako jabearekin gero ezkondu zan: eta biak Portugalen gure Erregeren Enbajadore, edo izenean egondu ziran. Oiek ume gabe ill baziran ere, gero berriz Borjak Loiolako Etxe onekin bat egin ziran.

### LOIOLAKO ETXE ETA ORATORIOAREN GLORIAK

Anziñakoak badirere, Euskaldunentzat berri onak dira. Jakizu bada, Aita S. Ignazioren bostgarren Asabak, kasi orañ bosteun urte txit famatuak izan zirala. Errege serbitzera zazpi anaia batetan Etxe onetatik joan ziran, da zortzieun Gipuzkoanok ainbeste milla etsai Franzesak, desegin zituzten. Loiolako zazpi semeai zazpi Bandak beren armetan Erregeek orduan eman ziezten.

Orañ lareun urte Ignazioren Asabak, Etxe edo Palazioan Gaztelu gisa jaso zuten. Gure erri oietako Etxe nagusi fuerteak galdu, ta Loiola bakarrik, orañ dagoen bezala, gelditu zan. Len zituen orma nagusi, ta abe andiak, Jainkoaren poderioak mirari andiz gorde, ta orañ ikusten dira.

Oratorioa berriz, ta Ama Birjiñaren Aldarea, an bertan irakurten dan bezala, Ignazio jaio baño askozaz lenago zan. D.<sup>a</sup> Madalena Araoz ondo izendatua Erregiña Katolika D.<sup>a</sup> Isabelen Dama kutun laztana, eta diotenez, beraren besoetako edo Ponteko alaba Palazioan azi ta zegoela, Martin Garcia Loiola, Ignazioren Asabarekin an ezkondu, ta Kortetik Etxe onetara etorri zan. Erregiñak bere kariñozko despedidan, beste joia ta alaja askoren artean, bere Kapilla errealean zeukan Anunziazioako Ama Birjiña bat eman, da esan zion: an zeukan doai, edo joiarik preziatuena zala: benerazio txitez andian iduki, ta ondo gorde zezala. Ala Oratorioko Aldarean debozio andiarekin ikusten da.

Imajiña onek marabillazko izerdi andiak eman zituen; eta orregatik Eleizara eraman nai zuten. Baña Jainkoak bere etxe onetan nai zuen: da Loiolako Etxandreak Ama Birjiñaren Angustietako erretablo deboto bat egin, da orañ dagoen bezala gelditu zan. Gero milla, ta bosteun da amabigarren urtean, Aita San Ignazio ogei ta bat urtekoa kanpoan zebillela, Ama Birjiña ori, bederatzi egunean izerditan egon zan; eta orren testimonioa, Oratorioan bertan ikusten da.

Loiolako Etxearen anziñako gloria libru ta paperetan txit jakiñak dira. Españan, da Indietako mundu berrian ospe edo fama andikoa beti

izan da: eta Gaztelarrak diote, gure Probinzian Loiolak lenagorik eztuela; eta Españako Etxe andi, nagusi guziakin bat, edo berdin dala. Azpeitiko, ta auzo oietako Etxerik argien, da agirien señalatuetatik, ta Ignazio baño askozaz lenagotik, ta emengo Asaben Asabetatik Loiolak bere jatorrizko Jabe prestuen odol nasgabe garbia zekarren.

Lazkuko Etxe nagusia emen andienetatik bat da. Etxe onetatik Loiolara Lope Garcia Lazkano ezkondu zan: da onen da bere emazte D.<sup>a</sup> Sancha Loiolaren denboran Pelegrin Gomez-en auzi izugarria akabatu, ta pakeak osoro egin ziran, da Aita Santuak, eta Errege Don Joanek Loiolari Eleizako Patronatoa eman zioten.

Loiolako odola ez Españan bakarrik, baita Indietako urrutietaraño, eta beste Etxe gutxi bezala, zabaldu zan. Aita San Ignazioren illoba Martin Garcia Loiola, Indietako Ingakin bat egin zan: D.<sup>a</sup> Beatriz Koia Loiola, Infante Erregeen alaba, ta D.<sup>a</sup> Maria Koia Loiola izan ziran. An D. Joan Borjarekin ezkondu zan. Orra Loiola Etxerik andienarekin bat egin zan: An Errege edo Ingakin; da emen Duke, Konde, ta Markesak; Lazkaon, Najera, Borja, ta Xabier-ekin. Azkenik guzia Idiakezko Etxe andian gelditu da.

Aita San Ignazio amagandik Bizkaiko Ondarroatik zetorren. Ala Señorío txitez Noble, ta txitez argiak milla ta seieun, da larogeigarren urtean, bere Junta Jeneralean Aita San Ignazio guztiz berea bezala Patroi andi, ta Bitarteko poderosotzat, al zan deboziorik andienarekin, bere ditxa, ta gloria andienerako artu zuen. Bere Dekretoan Señoríoak dio, ditxa oriek, eta zeruko faborerik andienak Ignazioren bitartez logratzeko esperanza osoa daukala.

Etxe onetako Kapilla Santua Ignazioren onrarako zeru bizi txiki bat egiña orañ ikusten da: eta egia esateko, ondo gauza gutxirekin. Nola era onean guztia apaindurik, ta agirian ederki dagoen, eta dan guzia batetan ikusten dan, askok ondo, ta asko derizte; baña egiaz ala ezta. Aita San Ignaziok bere biotzaren gañean, da Relikian daukan Manrique Jaunaren joia preziatua, ta ondo aditzen dutenentzat, are geieago Ignazio jaio zan gelako Aldarean dagoen, da D. Pedro Idiakez Jaunak eman zuen San Sebastian guziz estimagarria: oiek dira Etxe santuan diran alajarik balio-soenak.

Jainkoak bere gloriarako Ignazio-ri biotz bat eman zion, mundu guzia baño andiago eta zabalagoa, eta añ prestu edo noblea, non da lurreko ondasun guziak, Jainkoa bere Eleizetan geiago onratzeko, gutxi ziran orrentzat. Ignazio pobrea beti izandu zan: ta bere Semeak ere pobre onraduak nai ditu. Egiatzko pobrezta maitea bakoitzari gure Amatzat utzi



zigun, da ala estimatzen degu. Baña Jainkoaren Tenplo edo Etxe santuetan garbitasun, edertasun, da ondasun guziak nai zituen.

Ainbeste urtean Ignazio eskeko pobre bat egin zan: eta ori onra anditzat zeukan: onen barrengo, ta zeruko espiritua ejemploetan ikasi, Santu Borja, Duke santua, esan degu, nola lurreko ondasun andiak utzirik, Ignazioren gisa, eskeko pobre egiñik gure erri oetan eskean ibiltzeaz lotsatu etzan. Onela gure Aita S. Ignaziok nai du, bere Semeak, bear edo premia danean, limosna atez ate eskatzea: eta iñoiz Eleizetarako, edo Santuen adornurako, ta ez bestela. Orrela iñoiz eskatzen bada, ori zertan gastatzen dan, ongille guztiak beren begiz ondo dakuste. Ignazioren zeruko prudenzia, ta espiritu dibino au gauza askotan; baña pobrezan, da obediencian berezkiro agertu zan: eta bere Jesus pobre, ta obedienciare Relijio berria jaso zuen: eta obra andi au Azpeitiaren obrarik txikiena ezta.

Ignazio Azpeitira etorri baño len, Jesusen Konpañiako zimendu firmeak, eta Jainkozko amorioan ederki fundatuak, bere lagun santuakin Parisen atera zituen. Guziak estudio nagusietan maisuak ziran, guziak biotz bat eta anima bat egiten ziran; eta Karidadezko lege santu edertan Ignaziok sartu zituen.

J H S

**AITA SAN IGNAZIOREN BIZITZA**



## SARRERA

Santurik seinalatuenak munduan agertu baño len, Jainkoaren jakintan suabeak etorkizunen berri onak aurretik bere Mandatariakin bialdu idi ditu. Santu askoren bizitzak ala diote: eta gure Konpañiako eztiran Autore andi askok Aita San Ignaziogatik ori bera diote: eta mirarizko Profezia eder asko Ignazio, ta bere Konpañiagatik klaro esplikatzen dituzte. Tarragonako Konzilio sagradu batek zion, bere profezietan San Joanek dion Aingerua, Ignazio eta bere Konpañia dala. Oñ bataz itxasua, eta besteaz lurra artzen zituen, zeren Ebanjelioko Dotriña itxasoak igaro, ta mundu guzian Jesuitak predikatuko zuten. Santo Tomas Aingerua, eta San Bizente Ferrer Apostoloak, ori bera aditzera eman zuten.

Orañ bosteun edo geiago urte da, Abad Joakin famatuak ori txit klaro ezarri zuela: Ordena bat, Jesusen izenaz seinalatua, Jainkoaren txit estimatua, gizon justu, ta predikadore santuena Elizan agertu, ta izango zala: eta Aita Santuari Konpañiak dion obedienziako Boto partikularra, eta gure artean ditugun Gradu guztiak Espiritu Santuak konfirmaturik, orañ diran bezala, bosteun urte da, Jainkoak erakusirik añ klaro esan zituela.— Konpañia fundatu baño len, Milanen ta Alemanian, santidade andiko bere adiskide maite biri Jainkoak txit argiro fundazio ori, edo Konpañiaren etorrera esan zien.

Oietatik batak Aita Pedro Kanisio Beneragarri, ta Inperio guztiko Apostoloari amairu urtekoa zala esan zion: Zu, ene Seme, Jesus-en Relijio berri batean sartuko zera. Gero gure Konpañia fundatu, ta Pedro zori onekoa sartu zan, da zeruko Maisu miragarria ta ereje zakurren azote, edo mallu gogorra izandu zan. Jainkoaren onelako prodijio, ta profezia, kunpliturik orañ ikusten diran txit asko, Aita San Ignazioren Bizitzetan, txit ederki ta luzaro Autore jakiñak dakarzte.

Askok dira oiek: orañ Santuaren Bizitza, Euskaldunak bearren dutena, Jainkoaren gloriarako asi dezagun.

## LENENGO §.

### Aita San Ignazioren Jaiotza ta Aziera

Azpeitiako Seme, ta Seme askoren Aita S. Ignazio gloriosoa, Jainkoaren gloria andirako, beraren milla, ta lareun, da larogeti, ta amaikagarren urtean jaiotako, Loiolako Etxe onetan, ta len esan degun leku, edo gelan. Ignazioren gurasoak jakiñak dira. Beltran Ibañez de Loiola Palazio onen jabea, Aita; eta Ama D.<sup>a</sup> Marina Saez de Likona Balda, Azkoitiko alaba, izan ziran. Oiek seme ta alaba asko izandu zituzten: da Semeen artean Ignazio azkenekoa izan zan: ala txikiena bezala, kontu ta kariño geiagorekin beren ori azi zuten. Ignaziok aurra zanetik, ta gero are geiago Jainkoaren doai on asko, ta munduarekiko prenda seinalatuak agertu zituen: guziak txit nai zioten. Bizia ta alaia, ezertakoa, edo guztiarakoa zan, pensamentu altu ta inklinazio nobleetakoa zan, eta orregatik guzientzat txitez egokia, grazia onekoa ta estimatua.

Arebalo, Gaztelako erri batean Izaba Beneragarri bat D.<sup>a</sup> Maria Gebara bizi zan: onek Ignazio ondo azitzeko, txikitatik bere kontura artu zuen. Jainkozko Andre onen mendean txit aurreratu zan, ta berak ondo lagundu, ta gizon andi gai bat Ignazio egiteko prestaturik, D. Fernando Erregearen Palazioan Pajetzat sartu zuen, Jauregian bizitzea, ta Errege Katolikoaren aldean, aren Persona serbitzea edozeñtzat onrarik estimagarriena da. Baña Ignaziorentzat ango bizitza sosegatua tormentu gogorra zan. Onen espiritu gerrazalearen su bizi, edo irazozkia geldirik ezin egon zan. Gogoangarriak izan ziran anziñako Asaben azañak, Etxe seinalatu onetatik zazpi Anaia baliente Errege serbitzera batetan irten ziran. Ignaziok gogoan zeuzkan, ta bere ustez oriek baño abentajatuago izan nai zuen.

Soldadu baliente, ta Kapitan famosoa izateko gogo bizi erakutsi zuen. Ala Najerako Duke D. Antonio Manrique, Prinzipe baleroso, Ignazioren aide ta adiskide estimatuaren konsejuz, Arte militar, edo gerretan bear diran lezioak ikasten asi zan. Soldadu desgarratu, lotsa ta bildurgabe urratuen artean sartu bazan ere, Ignazio bere inklinazio onakin beti pres-tua izan zan. Fede, ta Erljioko pensamentu altuak bere biotzean zeuzkan, ta obretan erakutsi zituen: Jainkoaganon ezgiatzko piedadea: Meza, ta Sakramentuen erreberentzia, Sazerdote, Eleiza, ta gauza sagraduen errespeto nobleak. Paketsua, ta pakezalea zan: nola biotz garbi prestua, ta



guzien onerako, grazia guztiz egokia zuen, besteen aserreetan Soldaduen artean pakeak erraz, ta guzien gustora egin oi zituen.

Ama Birjiñari ta S. Pedro Apostoloari Ignaziok zien debozioa gero ondo erakusi zuen, eta biak ondo pagatu zioten, esango degun bezala. Bere balentia beti prestua, bear zanean, ondo argiro, ta biziro bestek ez bezala, agertzen zuen. Beñ batean prestuez batzuek Sazerdote Jauni bat tratu txarrean errespeto gabe zerabiltela ikusi zituen. Baña Ignaziok ezpata arin aren defensas atera, ta onra andi, ta esan al baño animo guziagorekin guzien kontra asi zan, ta kalea bete gizon berak bakarrik ikaratu, lotsatu, ta igeska andik bialdu zituen.

Onetan Najerako Dukea, Panplonako Birrei, edo Kapitan Jeneral zala, Ignazio bere estimatua suak eta garrak zeriozkala, Panplona-ko gerra bizian, Franzesen kontra defenditzera, joan zan. Gero Gazteluko murruan, Leoi baten gisa lagunak animatzen, ta lazki peleatzen ari zala, ala bear edo Jainkoak ala nai, ta bala baten golpetik, bernaiz bata puskatu, ta bestea gaizki eritu, ta illa bezela Ignazio erori zan, da orduan Franzesak Gasteluan bereala sartu ziran: da an jende gutxirekin añ portizki peleatzen puntuan ikusi; ta arriturik gelditu ziran. Aren noblezia, ta Birreiaren Aidea zala jakin zutenean, kontuz eta txitezko estimazio andiaz artu, ta beren Osagilleak ekarri, ta kuratu, ta erregalatu zuten.

Ignazio balientea sendatzen asi zanean, litera batean gizonak kontu ta errespeto guziarekin onara ondo ekarri zuten. Bere etxe onetan, orañ iru Aldareak Kapillan dauden leku edo aldean, luzaro oiean egon zan. Paskua Espiritu Santu bigarreanean, Maiatzaren ogeiean, da 1521-ren urtean zeruko golpe ta abiso au Ignaziok artu zuen: onen debotoentzat egun ondo señalatua: bada Santuaren egiazko ditzak ortik asi ziran: ala zerutik jatxirik Ignaziok bere Seme bati esan zion: egun ori benerazio andian gorde zezala beti, zeren bere biotza orduan Jainkoari eman zion. Panplonako Gazteluzar, Santua erori zan lekuan Eleiza eder bat egin zan, da Kolejioak urtero an festa solemne bat Santuari, sermoiarekin egiten dio.

Tormentu gogor asko Ignaziok oian igaro zituen: txit gaizkitu zan, ta iltzeko bezala Biatiko santua artu zuen. San Pedroren bezperan, gaur, au eskribitzen dedan egunean bezala zan, Eleizakoak Ignaziok artu zituenean: gaitzarekin txit estu zegoen. Baña nola S. Pedrori debozio andia zion, ta Apostolo santuaren alabanza Poema edo Libru bat atera zion; orañ bere estuenean amorio ori pagatzera, zeruko Mediku S. Pedro Ignazio bisitatzera etorri, ta sendatu zuen. Santuen Bizitza, eta penitenziak irakurri, ta oriek imitatzeko, ta Jainkoa egiaz billatzeko deseo santuetan

txik irazeki zan. Baña gogo bizi orien artean, bere argaltasuna ezagutu, ta pekatarien Amagana biotz guztitik biurtu zan.

Gau batean jaiki, ta Ama Birjiñari bere anparoa eskatzen zegoela, zeruko Erregiña besoetan bere Semea zuela, etorri zitzaion, ta luzaro Ignazio berea erregalatu, ta Jesus bere Semearen amorean irazaki zuen. Orduan goi artan zer igaro zan, berak dakite. Erregalo ta fabore oiekin Ignazio zerutar gaia, edo Santu andi egiteko bidean txit gogotik sartu zan.

Ignazio orazioan Ama Birjiñaren eskuetatik Jainkoari bere biotza eskeintzen zegoela, Etxe au bera baletor bezala, ots izugarri bat izandu zan, ta Santua zegoen gelan, ormak eta bidrierak urratzerañ sentitu zan: eta oraño zarren denborarañ señaie oriek Etxe santuan erakusten ziran. Ots andi orien artean Ignazioaren igesi deabrua joan zan, ta Santuari arrezkero, lurrean zuen bere etsairik andienari bezala beti begiratu zion.





## BIGARREN §.

### Aita S. Ignazioaren bizitza berria.

Zeruronzko Ignazioaren aldarte au txit miragarria izandu zan: bere Anaia, eta besteak ondo arriturik zekusten. Aizezko munduaren onra eroakgatik onen biotza itzuturik zegoen bezala, orañ Jainkoaren gloriagatik guziz enpeñatua zegoen. Len munduaren begietarako, eder naian zanko berdin geratzeko, tormentu andien artean bere burua martiri egin bazuen; orañ santuen penitentzia arrigarriak soseguz, ta zeruko argian irakurri, ta oriek bezala, Jesus-en amoriotatik, al zuen penitentiarik gogorrenak egiteko gogo biziak artu zituen Sendatu zanean, lurreko lengo orren billa biurtzea etxeokak nai zuten; baña Ignaziok zeruko pensamentu altuagoak beregan artu zituen.

Gaxo zegoen artean Najerako Dukearen bisita asko izandu zituen, da ori ikusteko aitzakia artu zuen: ta orrela, Jainkoa obeto billatzeko, bere Etxe onetatik irteteko asmoan prestatu zan. Baña norako? O Ignazioaren ditxa! Lenengo irteera Aranzazuko, edo zeruko Larrosarik aranzan artean dagoen ederrena, ta marabillaz beterikako, gure guztien anparo, Ama Birjiña miragarria bere Santuarioan beneratzera. An bere biotza Ignaziok eman, ta Zeruko Erregiñaren bendizio artu, bere Anaia despeditu, ta lagun birekin Nabarretara igaro zan. Emen bere Aide laztan Duke Jaunarekin atsedean, ta atsegin txitez andia artu zuen; ta bere lengo kontuak gustoz igaro, ta lagun biak Etxe onetara bialdu, ta bera bakarrik joan zan. Bidean Ama Birjiñaren kontra gaizki esaka zegoen moro bat enzun ta gutxiatik ill etzuen.

Monserrate-ren aldean, Penitentiako trajea erosi, ta prestatu zuen: gerrirako katea andi bat, arren gañerako kañamu, edo zerdazko zaku bat, alanbre edo burnizko azote bat, bordoi, ta Peregrinoen kalabaza bat: eta bere oriek agirien zituela, Santuario milagroso artara txit kontentu joan zan. Monserrateko Ama Santisimaren anparoan, fede bizi, ta biotzeko debozio guztiarekin jarri zan, ta Konfesio jeneral bat egin, da Ama Birjiñaren esku preziosoetatik Serre Dibinoari bere biotza negarrez, ta amorez urturik sekulako erran zion: Ama Birjiñaren onran Kastidazeko Botoa egin, ta Peregrino pobre baten gisa janzi zan. Ama Birjiñaren aurrean Jesus-en Banderapean sartzeko, Soldadu berriaren gisa, gau artan

bere armak billatu zituen, da gau guzia zutik, edo belauniko orazio, ta kolokio gozoetan igaro zuen. O zer gau argi zeruko!

Ignazio Jesus-en Soldadu berriaren azaña au Marzoaren ogei ta laugarrenean, 1521-garren urtean izan zan, da Ama Birjiñaren egunean, txit goiz Manresako bidea artu zuen. Nola bere soñeko berria pobre bati eman zion, an preso artu, ta gizon bat egia jakitera, lasterka justiziaz bialdu zuen. Ignaziok ori aditu, ta negarrez esan zuen: Ai ene ditxa gabea! Bada pobre bati, kaltegabe, on egiten ere ezta; bai, esan zion, pobreak nik eman diot, ta bere bidean joan zan. Monserrateko Monje santuak Kapilla eder bat Aita S. Ignaziori egin zioten, ta pauso oriek pintura preziosoetan, guzien debozioak an ikusten ditu.

Manresako iru legoak ariñ ibilli, ta Santa Luziako Hospitalera pobreen artean ezkutaturik egotera Ignazio joan zan. Emen penitente umill baten trajean, Jainkoak zeraman bidetik, arrigarriko penitentzia, ta mortifikazioan biziera berri bat asi zuen. Bere zaku, ta zilizio, ille nastu, ta buruagirian; oñ bata utsa, ta zapatarekin bestea, zeren sendakizun zeukan, da orrela kaleetan limosna eske asi zanean, guztiak zoro sinpletzat, begiratu ta oi dana, mutillak burla, ta iseka egiten zioten. Baña Santua pozez beterik Eleizara igaro, ta Mezetan ta Ofizio Dibinoetan sei zazpi ordu belauniko ta debozio txit andian ikusten zuten; eta benerazio egunoro andi goa zeukaten. Jainkoaren izenean etxeetan limosna eskatu, ta pobreak eman, ta dotriña bidez erakusten zien.

Zortzian beñ konfesatu, ta komulgatzen zan: ur, da ogi beti barau zan, ta egun bi, ta iru ezer jan gabe. Betiko zilizio, ta azote gogorraz gañera, lo gutxi, ta lurraren gañean, arri edo ol bat burukotzat zuela egiten zuen. Hospitaleko eri bakoitzean Jesukristori begiratzen zion. Ama maite baten gisa, oiak, eta beste egiteko umillenak kontuz, ta debozioaz egin, da guztiak eta bakoitza egunoro serbitzen da konsolatzen zituen. Eta zenbat eriak gizatsez beti go, anbat Ignazioarentzat gozoago. Orietatik triste bat guzia usteldua, ta bere usai gaiztoagatik guzien nazkagarria zegoen: eta nola Ignazio añ txukun garbizalea izan zan, aren ustel usai gizatsak goguan jo zuen. Kontuan erori, Jesu Kristori begiratu, ta bere burua obeto benzitzeko, erriagana joan zan: txit ondo palakatu, zeruko konsejuak eman, eta konsolatu zuen: da erida ustelak garbitu, ta belauniko jarri, ta zeruko erregalorik gozoena baliz bezala zorna nazkagarri guztia bere mingañarekiñ txupatu zion. Onela bere buruaren kontra bitoria andi bat sekulako irabazi zuen: askotan gero ta gustoz ori egin zuan.

Penitentzia izugarri, betiko ur da ogi barautzera, odolezko azote gogorrek, betiko zilizioa, ta lurrean, da lo gutxi egitea, Ignaziori gutxi zeri-



tzan. Jesus-en Soldadu balienteak bezala pelea latzagoak, ta bitoria andiangoak billatzen zituen, ta batallako kanpora Manresatik irten zan. An zebillela, arkaitz artean berez egindako ta berariazko zulo bat topatu zuen: eta Manresako Kueba ditzazko famatua au da. An leio gisako zirritu bat zegoen, da andik bere Ama Santisimaren Santuarioa ikusten zuen. An biziera berri eklo Nobiziaduan Ignazio sartu zan.

An orazio luze, ta penitentzia gogorrak berriratu, ta S. Antonio Andiarene gisako tentazio, ta pelea portitzak igaro zituen. An deabru ak agirian askotan tentatu, ta golpeka, ta ikara ta naigabeakin iltzeko zorian, edo itotzeraño estutzen zuten. An barrendik eskrupulo, bildur, pena bizi ta agoniako antisia illunak artzen zuten. An bere gorputza penitentzia, ta tormentuakin, orien kontra urratu, ta desegin nai zuen. An tranze estu orietan bere Ama Birjiñaren mantupera, ta onegandik Jesus maiteagana negarrez urturik biurtzen zan, ta biak zeruko konsuelo ta faborez bete, ta pelea gogoragoetarako animatzen zuten. Bitartean pena ta penitentzia geiegiak Ignaziori bere antza kendurik argaldu, igartu, begi biziak illundu, ta ondatu, ta oritu, edo ubeldu zuten guzia.

Gaitz andi batek an eman zion, beñ da berriz iltzeko zorian jarri zan. Ignazioren Santidadea jakiña zan, da bere gaitz orretan, Santo Domingo gloriosoaren semeak beren karidade andiarekin Konbentura eraman, ta al zuten erregalo guztian sendatu artean kariñoz iduki zuten. Orien Eleizan zeruko bisita ta fabore andiak artu zituen. Beñ mezatan zegoela, Sacerdoteak Ostia goratzean, Jesus dibinoa, gloriazko edertasunez beterik agertu, ta bere amorezko Sakramentuko egoera miragarri, ta misterio eskutatuak agertu, ta erakusi ziozkan. An bertan Ama Birjiñari debozioz erregutu, ta egunoroko ejerzizio bat Trinitade Santisimoari egiten zegoe-la, kordegabe arroboturik gelditu zan: Iru Persona dibinoen argi txitez bizi batek aren anima bete zuen: eta letragabeko gaztea zala, Libru andi guziz miragarri bat eskribitu zuen: Orduan Misterio orren gañean ikusi zuen argi dibino, ta izandu zuen zeruko jakindea betiko Ignazioren biotzean josi zan: Trinitade Dibinoari zion amorio paregabea Eskola orretan bizi guztian berriro irazeki ta geitutzen zan.

Manresako arzuloan egon zan artean, jakiña da, Jesus maiteak, eta bere Amak ogeita amar edo geiago bisita luze gozoak Ignaziori egin ziozkatela. Ama Semeak batzuetan, banaka besteetan etortzen ziran. Illunze, edo Abe Marietan Jesus dibinoa, gizon egin, da predikatzen oi zebillen trajea, onela Ignazio Jesus-en Konpañia beraren antzera jasotzeko saiatu, ta egin zedin, ta bera ikusi, ta modu guztia ikasi zezan. Onela Relijio berri,

Jesus-en Konpañiako traza berak erakusi, ta era dibinoa, ori, bear bezala, egiteko orduan artu zuen.

Zeruko igoera, edo rapto orien artean señalatuena, ta munduan bear bada berriz ikusi eztana, Manresako Hospitalean Ignaziok izandu zuen. Konpletak enzuten zegoela, Jainkoak beregana deitu, ta illa bezala gelditu, ta zapatu batetik bestera, zortzi gau, ta zortzi egunean, kordegabe estasis miragarri batean egon zan.

Orduan Ignazioren zeruko fabore dibinoak, nork esan al ditzake, Jainkoak eta berak ezpada? Jesus onak, eta bere Amak beren Ignazio Manresan txit asko erregalatu zuten.



## IRUGARREN §.

### Aita San Ignazioaren biziera berriko pausuak.

Munduko liburu ta estudioetan baño Manresako ordu bateko lezioetan zeruko argi ta jakintasun geiago Ignaziok artu zuen, ango aizulo edo kueban. Ejerzizio dibinoak Ama Birjiña, Espiritu Santuarekin bere maisu zituela artu, ta Liburu miragarria anima askoren salbaziorako atera zuen, da Kristau guziaz Nobiziadu berri bat eman zien.

Nere Ejerzizioen asieran bear zan diña onen gañean esan nuen. Manresako beste leku askotan zerutik artu zituen grazia argi ta faboreak beñere astu gabe bere biotzean ondo josirik eraman zituen: eta zorioneko Manresa guztian, ta angoen biotzetan josirik Ignazio betiko gelditu zan.

Nork esan edo konta ditzake, ditzazko Manresan zenbat leku Ignaziok santifikatu zituen: zenbat espantu andiko penitentzia, zilizio, katea ta odolezko azoteakin arritu zituen? Jainkoa alabatzeko gauza da, alde guzietatik zenbat milagroko señaile, zenbat arrasto santu, bere arrobe, raptu, edo estasis luzetan utzi zituen: da Ignazioaren gorputza illa bezala lurrean, eta San Pablaren gisa aren anima zeruetan Jainkoaren edertasuna an ikusten bitartean zegoen: Manresako jente debotoak, Jainkoak ala nai ta leku edo toki orietan ikusi zituzten Ignazioaren fabore, mirari, ta prodijio guztiak sekulako beren biotzean josi, ta aiñ osoro, ederki gaurko egunean eramaten da ikusten dira. Zer marabilla andiagorik?

Gure Jesus onak Jerusalengo bere pausoen memoria gorde zuen bezala, bere Ignazioaren santidarezko pauso orien ta besteen memoria gozoa leku guzietan gorde du: eta Santu andien artean txit señaletua egin da. Ignazio bere Jaunaren gloria bakarrik leku ta gauza guztietan billatzen, ta bere onren igasi beti zebillen; da Jainkoaren faboreak ta gizonen onrak berari beti zerraiozkan; itzala gorputzaren ondoren bezala Ignazioaren ondoren onrak leku guzietan zebiltzan. Orietatik era batera iges egiteko, Peregrino gisa Jerusalem aigarotzeko prestatu zan.

Ondo nekez ta dolerez bazan ere, bere Manresako leku santu guztietatik despeditu, ta Jainkoari jarraitzeko guziaz larga zituen. Bere deboto guziaz Ignazio bertan idukitzeko al egiñ guziaz egin zituzten; baña onen animo firmea ta deseo santuak ikusirik, ta biderako dirua ere artu nai etzuela; beren erregu estuakiñ, gañeko zaku gogorra utzi ta oial beza-

tar edo merkezo sotana bat, Jainkoak daki nola arrerazo zioen. Onela kanpotik; bañan barrendik bere zilizio, ta kateak jantzirik bere erronomia asi zuen. Monserrateko bere Ama Birjiña, ta ango bere konfessore santua ikustera noizean beñ joan oi zan, ta azken onetan bien bendizioa debotio guztiaz artu, ta Barcelonara igaro zan; eta gero ara biurtzeko bere ongilleak utzi zituen.

Pobrea bezala limosnaz ontzi batean sartu, ta, emen zeruko platarekin jendeen artean on asko egin zuen. Jainkoak Ignazioaren amorez milagro andiak askoren fabore orain egin zituen; eta itxasoz ta leorrez Santuaren beste bide ta pausoetan ori bera beti ikusi izandu zan. Gaetako portura ondo allegatu ta andik Erromara txit nekez igaro zan.

Izurri gogor batek Italia guztia txit estu zeukan; eta nola Ignazio bere penitziarekin añ etxura tristekoa zijoan, errietan sartzen utzi nai etzioten, ta kanpoetan lo egin bear zuen. Bere argalez oñen gañean ezin egon, da bidean askotan erorten zan, eta nork lagundu etzuen.

Orduan Jainkoagana biurtu, ta bere sokorruan beti an zuen. Izurri denboran Ignaziori erriari bezala askok igukoka begiratzen zion; baña alere anima askotan frutu andia ateratzen zuen. Beñ batean argalez lurrean erori, eta larri edo txit estuan zegoen. Jesus onari biotzetik otsegin, ta besteetan bezala aren Majestadea txit amoroso agertu, ta zeruko konsueloz bete zuen; da esan zion: Ea: anima zaite Ignazio: oiek baño pena ta neke andiagok nigatik igaro bear dituzu.

Eramu egunean onela Erroman sartu, ta amabostean an egondu zan, Aste santu, eta Paskua denboran.

Estazioetako Eleizak ta beste debozioak fede guziaz ikustatu ta Jerusalemako Aita Santuaren bendizioa artu, ta Veneciara nekez txit ta milagro askoren artean igaro zan.

Bidean naigabez erori ta zegoela, Jesus dibinoak jaso, ta indarsutu zuen: eta nik bidean lagunduko dizut, esan zion. Ala egin zuen: eta Santuak nekegabeko pausorik ematen ezpazuen ere, pausoero Jaunak egin ziozkan faboreak askoz andiagok ziran. Venecian limosna eskean billatu, ta plazan Ignaziok lo egiten zuen: eta mirariz Jainkoak publikatu zuen.

Marko Antonio Jaun poderoso, ta jakintsua baño ere santuagoa, lotan zegoela, zeruko dei bizi batek esnatu zuen, da esan zion: Ta zer? Zu erregalozko oi bigun orretan, da nere sierbo Ignazio lur gañean? Ori aditu, ta lasterka oetik jaiki, ta onen billa irten zan. Jainkoak gidatu ta Ignazio arkitu zuen: bere etxera eraman, da onra andian erregalatu zuen. Baña Santua onen igesi biaramonian andik joan zan.



Veneciako Agintariak Jerusalem alderako ontzia amore onez señalatu zion. Turkoen bildurrak asko atzeratu bazituan ere, ta Ignazio kalenturakin bazegoen ere; Jaunaren promesetan fiatua bezala; ontzian sartzeko señailea aditu zuen bezala, oietik jaiki, ta ariñ enbarkatu ta Txiprera ta gero Jope-ko portura allegatu zan: da azkenik Jaunaren erri, edo Palestinara sartu zan.

## LAUGARREN §.

### Jerusalengo Aita San Ignazioren pausoak.

Palestina edo Promesako Erri Santua deritza, zeren Abran bere Adiskideari Jainkoak bere ondorengoentzat agindu zion. Esnea ta ezta zerion leku erregalatua zan.

An Jesu Kristo gizon egin, bizitu, ill, da piztu zan: da orañ Peregrino debotoentzat zeruko erregaloz betea da. An ditzazko Ignazio fede, ta amorio biaz irazakirik sartu zan. Jerusalem ikusi zuen puntuan belaunikatu, Jainkoa adoratu, ta lurrari mun egiñaz, negar gozoz guztia irrigabiatu zuen. Aren biotz prestua, zeru batean sartu zan, da gure salbaziozko Misterioetan Jainkoa alabatzeko prestatu zan. Pauso dibino aietan, nork esan dezake, nola ibilli zan? Zer zeruko argi, ta amoriozko sugarrak Jesus maiteak bere toki santu aietan Ignaziori emango ziozkan?

Bere espirituan soseguz, Jainko guztia aur txiki gozo egiñik Belengo portalean jaio, ta abereen artean Ignaziok an ikusten, da adoratzen zuen, da zortzi eguneko zala, Zirkunzizioko tormentuan bere odola, ta negarrak nola eman zituen. Andik, nekez bazan ere, Jesus maiteari bere Apostoloakin, Ignaziok berak gurekin egin bear zuen bezala, jarraitu zion, Jainkoaren gloria ta zeruko dotrina erakusten, Sermoi dibinoak predikatzen, milagroak egiten, da ejemplo ederrak, eta beste Sakramentu Santua ill baño len, biotzeko amore guziaz guri ematen: Penaz ta dolozko Pasio guztiko pauso, ta Kalbarioraño Estazioetan: Jesemaniko ortu edo oraziotik preso Anas, Kaifas, Pilatos ta Herodes-en etxeetan kaleak barrena, azoteetan, arantzazko koroakin da bere gurutzarekin, an ill arteraño jarraitu zion.

Pauso bakoitzean Ignazioren biotza erdiratu, edo puskaturik, amorez ta doloz urtu, ta desegiten zan. Naigabe samiñak ito, ta bazan ere batetik bestera Ignazio ibilli ta Jauna gugatik gurutzetik jatxi ta arkaitz obi, edo Sepulkro santuan sartzen ikusten zuen. An Jesus onarekin, munduarrentzat sekulako illa Ignaziok bere biotza enterratzen zuen. Olibete-ko mendi santuan Jesus glorioso zeruetara igo zan: da Ignazio ondo kostarik bazan ere, ara iru bider igo zan; ori bera pauso guzietan, biotzean, ondo jositzeko nai zukean. An betiko egotea aren debozioak eskatzen zuan. baña Jainkoak Españan nai zuela ikusi, ta biotza an utzi, ta onara biurtu zan. Biaje guzian len joateko bezala, orañ etortzeko pausooro



lurreko trabaju andiak, ta zeruko fabore andiagoak, itxasoan, da legorreen beti berekin zituen.

Jesu Kristogan Jerusalem-en bere espirituari, lastima andian Pausoak igaro zituen gisa, orañ beregan bidean oriek iragotzen zituen. Oriek ikusi ta pobrezia estua, gosea ta egarria, neguko otzak, estomagoko miñ, da argaleria Santuerentzat ezer etziran: burlak, isekak, injuria, agrabio ta tratu gaiztoenak, ta sentigarrienak geiagoren deseokin Jesus-en izenean ixillik, baita pozik ere eraman zituen. Alere Jainkoak milagro ikusgarriekin Veneziara Ignazio biurtu zuan.

Emen lengo bere ongille ezagunakin zerbait atsedean da Genovatik Barcelona, Erri famatura igaro zan: eta bere Maisu dibinoak agindu ta bere ejemplo ta dotrinarekin anima asko irabazteko ta bere estudioak asitzeko emen gelditu zan.

Isabel Roser, ta Ines Pascual bere lengo ongilleak beren etxe, ta maiean iduki nai zuten, baña Santua eskean asi zan: ta ala bizi nai bazuen ere, bere konfesoreak agindu zion Ines Pascual-en semearekin jan zezala.

Pobreentzat limosna eskatu, ta ogi zatirik gogorren da beltzena gorde oi zuen. Ines-ek ori jaten ikusi ta esan zion: guzien pobreena zu izanik, besteai ogi zuri ona eman, ta zuk ori jaten dezu? Santuak erantzun zion: Ines, Jesu Kristok ogi puska bat eskatuko balizu, zuria, ala beltza emango ziñoke? Bada pobreak ematean Kristok eskatzen, da artzen du. Fede ta lege santua bere konseju ta obretan onela beti erakusten zuen.

Gari anega batzuek asteoro Ignaziori Andre aberatz batek limosna egiteko ematen ziozkan: ogia eragin da pobreak guztiak ematen ziezten. Mirari anditzat ikusten da kontatzen zan, eskean bera zebillela Kristoren pobreak limosna egiten, nola beti bizi zan.

Ogei ta amar urtekoa estudioan baña txit gogotik gazte, edo txikien artean, sartu zan; eta estudioetatik ateratzeko infernu guztia Ignazioren kontra jaiki bazan ere Jaunaren graziarekin atzerapenak garaitu zituen. Estudio, ta osasunagatik Konfesoreak agindu zion, penitentzia gogorre-giak utzi zitzala. Obeditu zion; baña alere geiegi ziran. Itxasoko Ama Birjiñaren Eleizan bere konfesio, Komunio, ta orazio luzeak debozio andiaz oi zituen. Len baño ere guziagotan Ignazio arrotaturik, zeruko argi, ta diztiaduraz edo resplandore ederrez beterik askok ikusten zuten: eta Joan Pasqualek bere gelan askotan orrela ikusi zuen. Etorkizun asko, ta profetia andiaak askori Santuak esan, eta kunplitu ziran.

Emen bere Ejerzizio Santuak ematen asi zan, da anima galdu asko deabruen kateetatik libratu, ta zeruko bidean sartu zituen.

Monjen konbentu bat zira lasai ta gaizki zegoen. Aien Eleizan orazioan luzaro egon oi zan ta ejemplo andia emanda Ejerzizioen platicak ematen ziezten, da laster Jainkoarentzat irabazi zituen. Munduko jolasetara ara joaten ziranak itzez ta obraz tratu gaizto asko eman zioten makilla golpe ta eridak. Azkenik moro bi Ignazio illtzera bialdu, ta illtzat utzi zuten. Santua nekez sendatu zan, baña animen egarri biziak Monjetara guziak biziera barri Santuan sartu artean, berriro biurtu zan.

Gaizkille oien agintaria bere ejemplo ta orazioekin Jainkoarentzat irabazi zuen ta Santuari barkazioa eskatu zion. Barcelonako gizon triste batek, zeren bere anaiarekin zekarren auzia galdu zuen, desesperatu, ta bere burua urkatu zuen: da denbora luzean itorik egondu zan. Ignazioren zeloa aren animaz lastimatu, ta illaren ondoan orazioan jarri zan. Andik jaiki, ta fede biziak esan zion: Konfesatu nai dezu? Bai, erantzun zion. Bereala egiazko konfesio andi bat egin da illa gelditu zan. Onelako milagro, ta beste obra andi asko animen Salbaziorako egin zituen.



## BOSTGARREN §.

### Aita S. Ignazio Alcalako Estudioetara joan zan.

Barcelonan bere Maisuaren gustora estudioak ondo akabatu, ta Estudio nagusietan sartzeko Ignaziok Alcalara joateko animoa artu zuen. Ezagun on askok Ignazio bertan nai zuten. Beste askok aren intenzioa ikusi, ta Alcalara jarraitu nai zioten. Iru lagun artu zituen. Bere adiskide askori beren bizitzako etorkizun guziak, zeruko argi, edo profeziakin esan ziezten, da guztiak osoro kunplitu ziran. Migel Rodes bati bere bizi guttia aurrean ta esan zion beste semeen artean bat nik fundatuko dedan Reljioan sartuko da. Andik denbora askora Seme ori Jesuita seinalatu bat izandu zan.

Joan Pascoal bere maieko lagunari asko txit Ignaziok nai zion: Ejerzizioak eman, da marabilla andi asko onek ikusi zituen: etorkizun zeuden trabaju gogorren berri osoa eman da Santuak esan zion: guziak aren salbaziorako zirala.

Ala neke triste asko bere etxean ikusi, ta penaz baño ere debozioz guziago negar oi zuen. Gurutze pisu oriek Ignaziok bere kartakin arindu, ta txit konsolatzen zuen. Gero gloriáz janzirik ezker oneneko bere Ignazio zerutik etorri, ta, arako ezperantza, ta barri onak Joan bere maiteari eman ziozkan, da onek trabaju guziak ondo eraman zituen. Onan etxetik Alcalako estudiotara igaro zan baña Barcelonan Santuak eman zituen Ejerzizio, ejemplo ta animen konbersioen fama oroigarria beti izandu da.

Alcalara maisurik andienak Katedrak fundatutzero bezala, Ignazio Santidadearen katedra fundatutzero Jainkoak eraman zuen. Miserikordiazko etxean gela batean jarri zan. Amore onez ango Agintari Lope Dezak artu zuen: da onen sema A. Alonso Deza, Jesuita Teologo txitez famatua lenengo gure maisu, ta Katedratiko Alcalan izandu zan. Ignazioren gela kapilla txit eder bat egin zan. Miserikordian duendeak zebiltzalaiko jende guzia ikaratzen zan; baña Ignazioren fede, ta bitoria miragarri bat ikusi zan. Onen Santidadeak Alkan egingo zuen frutua barrundatu, ta Etxekoak deabruak persegitzen zituen.

Illunze batean ots izugarriaki Ignazioren gelara etorri zan. Baña Santua fedez armatu ta zegoen lekutik esan zion: Zer etsai dira oiek? Zer dakarte? Ea, Jainkoak eskurik eman badizute, emen nago, ez noa iges: egi-

zute ark nai duen guzia. Baña eskurik ezpadezute, aurrak bezala ikaratzeraz, zertara zatozte?

Onela duende edo deabruak lotsaturik bota zituen.

Gero makilla bat artu, ta txakurren gisa golpeka, edo itz batekin aienatzen zituen. Arrezkero Ignazio deabruen azote eginda pintatzen da.

Lau lagun Santuak bere kontura artu zituen. Lenengo limosna eman ziona Martin Olabe, Bitoriako Seme Noble aberatz bat izan zan. Au andik ogei ta sei urtera, Paris-ko Teologo famatu, ta Trentoko Konzilioan Maisu andi egon, da Jainkoak gure Konpañiara ekarri, ta Jesuita txit estimatua izandu zan. Limosna egiteko D. Diego Egiak txit asko laguntzen zion: au ta bere anai D. Esteban, Ignazioren Ejerzizio, ta ejemploarekin txit santu egin, da Konpañian sartu ziran.

A. Diego txit Aingerua zan beti, ta gero A. San Ignazioren konfesore beneratua izandu zan.

Estudiante asko lasaiegi ta gaizki bizi ziranak, Santuak Alcalan bere ejemplo, ta zeruko ejerzizioekin deabruen zarpetatik atera ta Jainkoari eman ziozkan.

Denbora gutxian mudanza miragarriak ikusi ziran. Lenago, urtean beñ jendeak komulgatu oi ziran, orañ Ignazioren ejemploa ikusi, ta txit asko zortzian beñ egiten ziran. Estudiante, Relijioso, ta jende asko eskola famatu artan txit Jainkoarenak egin ziran.

Ignazioren prodijio oiek ikusi, ta deabrua arrabiaz beterik aren kontra biurtu zan. Inkisiziora salatu, ta bein ta berriz lazki persegitu zuten. Baña alabanza andiakin aren fabore sententzia Jainkoak beti atera zuen.

Orain gure Dotrina, Misio ta Ejerzizioetan esaten deguna, edo artikuloak, Mandamentuak, Konfesio ta Komunio, konzienziako esamina, lezio ta orazioa erakusten zituen; baña zeruko espirituz beterik, eta Santua, enzuten zuten guziak zerurako irabazten zituen.

Alcalan bertan lanze bi Santuak ikusi zituen. Bata: ango irugarren persekuzioan, Justiziak Ignazio preso kaleak barrera gaizkilleen karzelara afrenta, ta lotsa andian zeraman. Kale nagusian topatu zuen D. Franzisko Borja, Gandiako Duke andia, zaldun gazte galanta zaldi eder batean, da kriadu askorekin zijoala. Jainkoak bere Ignaziori neke gogor artan erakusi zion, Borja andi ori bere oñetan Erroman ikusiko zuela, ta gero Konpañiako Jeneral izango zala. Borja agintaria zaldiz, ta Ignazio umilla kalez, ta preso, kale batean ikusi, ta gero gauzak ala trukaturik, o zer atsegiña, bere penen artean Ignaziok artuko zuen! O zer faborea!

Beste lanze tristeza zan. Lope Mendoza, gizon galdu bat, eskandalo itsusian Alcalan bizi zan. Santuak ori konbertitzeko zeruko konseju, ta



abiso on asko eman ziozkan. Lope itsua, onen kontra txit aserratu, eta bere su bizian esan zuen: errerik ill nadilla ni, baldin onek erretzea merezi ezpadu. Ignaziok modestiaz betarik esan zion: begira, kontu, esan dezuna gerta eztakizun. O desdixta! Egun artan festa batean polbora artean zebilela, ori irazaki, ta erre, ta gaizki iltzan; eta ori ikusi, ta Alcalá guztia ikaratu zan.

## SEIGARREN §.

### Aita San Ignazio Salamancara eta Parisa igaro zan.

Alcalako persekuzioen artean Jainkoak Ignazioren santidade, ta dotrina esan al baño gloria andiagora jaso ta agertu zuen. Bañan onen marabillakin munduko Unibersidaderik famatuena santifikatzeko Ignazio bere maitea Alcalatik Salamancara, ta emendik Parisko Sorbonara eraman zuen.

Salamancan persekuzio, testimonio, kartzelak, grillu, ta kateak Ignazioren begira zeuden. Bereala Ejerzizioekin frutu andia ateratzen asi zan.

Mirari oroigarriak Alcalan ikusi baziran, Salamancan txikiagoak ikusi etziran. Animen salbazioagatik kartzelan grilloekin bazegoen ere, espiritua txit libre ta alegre zeukan: gutxi zeritzan guziari, edo guziago nai zuen.

Aren pena oietan lastimatzen zirana esaten zion: Jesu Kristogatik kartzelak eta penak eramatea, zer ditxa andia dan eztakizute. Bada ez Salamancan, da ez mundu guzian, ainbeste katea ta grillu ezta, non da Jesus-en amorez geiago nik nai eztedan. Len Alcalan, da emen orañ esaten zioten; Letradu defensore bat ar zezala; baña iñor ere sekulan artu nai etzuen. Bizitza inozente, ta garbia, ta Jainkoa bere kausan bezala, Defensorerik asko zala, esan oi zuen. Ala zan, da Ignazioren santidadea leku guzietan ondo, ta alabanzaz beterik Jaunak mundu guziari agertu zion. Emen da Alcalan, bere trabaju ta gurutzeen artean, señaletxitez oroigarriak utzi zituen.

Geroz Paris-en eman zituen prodijiozko frutu ta mirariak argiagoko izan ziran. Teolojia obeto estudiantzeko ara joan zan.

Bere estudio nagusiak txit gogotik akabatu, ta ango Dotore andien esamen guziz estua guzian alabanzakin igaro, ta Ignazio Maisu egin edo graduatu zuten.

Onen jakindeak ta are geiago santidadeak frutu señaletua atera zuten, eta andik sei urtera sei Lagun Santu irabazi, ta zerurañoko Jesus-en Konpañiaren zimendu miragarriak asi, ta askatu zituen. Sei lagun oriek Pedro Fabro, Franzisko Xabier, Diego Lainez, Alonso Salmeron, Nikolas Bobadilla ta Simon Rodriguez, Paris-ko Sorbonan Maisu andi ezagunak, ta are Santu andiagoko izandu ziran: ala gero mundu guziak ikusi zuen.

Orduan da beti Ignaziok bere ejemplo, penitentzia, orazio ta Ejerzizio Santuakin milagrozkoko konbersioak Paris-ko Sorbonan, erri ta estadu



guzietan egin zituen. Relijioso Konfessore bat gaitz bide, ta eskandalo itsusian bizi zan. Egun batean Ignazio Jainkoaren abiso argiaz orren oñetara joan, da biotzeko damu ta negarrez urturik bere konfesioa egin zuen. Konfessore ori txit arriturik ta eriturik gelditu zan: ezin sosegatu, ta biotza erdi bi egiñik Ignaziori esan zion: Konfesio au zure pekatuena izan ezta, ezpada nere kulpena.

Jainkoagana biurtu nai det, biziera berria nai det, lagun zadazu. Ignaziok Ejerzizioak eman, da Santu bat konfessore ori egin, da Santuaren adiskide txit estimatua beti izandu zan.

Onela beste konfessore asko Jainkoarentzat betiko irabazi zituen.

Paris-ko Dotore famatu bat Ignaziok Jainkoarentzat nai zuen; da onen graziaz armatu, ta beraren etxera joan zan. Dotorea trukoetan jokatzen arkitu, ta jolasean takoa Ignaziori eskeñi zion. Santuak beñ da berriz esan zion: takorik bere bizian artu etzuela.

Baña aren leia ikusi, ta: ordu onean joka dezagun, esan zion; baña galtzen duanak ogei ta amar egunean bestearen gustoa egin bearko du. Bai, esan zuen, eta biak jokatzen asi ziran: da Ignaziok eskurik utzi gabe irabazi zion.

Santuak orduan Dotoreari ogei ta amar eguneko Ejerzizioak eman ziozkan: da joko, milagro ta Ejerzizioen marabillak ikusi ta guztia Jainkoarena gelditu zan.

Gero esan oi zuen: iñoiz ere baño geiago irabazi zuela, Ignaziorekin bere ditzaz joko galdu zuenean.

Paris-en ondoan gizon galdu bat txit gaizki bizi zan: onen amantebentua txit agiria, ta iñork ezin kendu zuena zan.

Baña Ignazioren zeloak erremedioa billatu zuen.

Enbra gaiztoarena joateko zubi bat igaro bear zuen, ta neguaren biotzean ibaia jelturik zegoen. Gizona joateko orduan Ignaziok, soñekuak kendu, ta ibaien sartu, ta gizona sentitu zuenean beste munduko baten gisa, deadarrez asi zan: gizon galdua, nora zoaz? Infernura. Bada Jainkoa galdu nai badezu zoaz, zoaz. Baña zure erremedioa ari eskatzen, ni emen egongo naiz. Ignazioren zelo irazaki ura an ikusi ta gizon tristeza, okasioa sekulako utzi ta egiatzko penitentzia egin, da bere ditzax andiaz Santuaren adiskide andi betiko gelditu zan.

Munduko miserien artean gizon pobre bat, desesperatu, ta nola bere burua urkatzera zijoa Jainkoak Ignaziori errebelatu zion.

Onek diszipulo bat aren ondoren bialdu, ta modu onean nola dibeartitu bear zuen, esan zion.

Biak beren penak kontatzen zeudela Ignazio allegatu, ta bata ta beste Jainkoaren konfiantzaz ta zeruko konsuloz bete zituen. Diszipuloa irabazia zegoen; ta beste tristeza bere pekatuen damuz ta neke guziak Jaiuaren izenean ondo eramateko gogo biziarekin kontentu etxera biurtu zan.

Onela Paris-en egin zituen marabillakgatik Dotore Peralta txit jakintsuak esan oi zuen: An berak ikusi zituen milagroak beste gabe Ignazio kanonizatzeko asko zirala.

Sei urte bezala Santo Domingoko Kolejoan Teolojia ikasi, ta Jainkoaren gloriarako bear bezalako Ministro kabal egin zan.

Bere sei Lagun santuak Maisuak ziran: oien Bizitza ta Marabillak emen kontatzea gauza txik alegrea, baña txit luzea litzake: argatik Santuari jarraitu nai diot. Zeruko sei lagunak Teolojia, Ejerzizio, ta beste obra santuetan Maisu egin ziranean, Ignaziok argi dibinoz beterik, biotzetik eta luzaro orazioa egiteko esan zien. Orren ondoren Jainkoaren borondatea agertu zien, da nola bere gloria andienarako eskojituak zeuzkan: munduaren salbaziorako señalatuak bezala, Apostoloen gisako, ta Jesu Kristoren antzeko biziera berri bat artzeko. Jaun au Aita Eternoak guzien ejemplar bizia bialdu zuela: ta gure indar gañeko azaña bazan ere, beragan konfianza osoa zeukanak, edozeñ marabilla erraz egingo zuela. Orra, zuen artean argalena ni naiz; baña nere Jainkoarekin batean, dan guztia erraz egin uste det.

Ignaziok onela gauza dibino asko esan, ta Lagun santuak Jainkoaren amorez irazaki, ta batetan erantzun zioten: amore onez, ta biotz osoaz, berak nai zuen guztirako txit prest zeudela.

Apostoloen gisa, biotz bat Ignazio, ta ditzazko bere Lagunak egiñik beren Ejerzizioetan Espiritu Santuaren su, ta garrak txit argitu ta berotu zituzten. Andik bereala Zeruko Jesus-en Konpañia lurrean jasotzeko, ta Erljioko botoak berari egiteko deseo biziak artu zituzten.

Sakrifizio andi onetarako Abustuko Ama Birjiñareñ egun glorioso, ta Martirien, Paris-en ondoan dan Ama Birjiñaren Eleiza señalatu zuten.

Ara egun solemne orretan joan, da A. Fabro sazerdotearekin guziak konfesatu ta onen Mezan Ignaziok, Xabier-ek ta besteak Botoak egin, da komulgatu ziran: da urrengo urte bi aietan, egun, da leku artan bertan Ama Santisimaren onran sakrifizio ori berrito egin zuten.

Ama maite onen besoetan Semearen Konpañia an jaio zan; an azi, ta bizi da. Eztizko aren amore gozo bat Ignazio ta bere Lagunen biotzetan josia zegoen ta beren obretan, Libru, Dotrina, Sermoi ta Milagroetan ala





beti ikusi da. Egun andi ori guzia Martirietako Ama Birjiñaren Eleizan da mendian igaro, ta Ignazio bere lagunakin zeruan bezala bizi zan.

Baña beste leku guzietan bezala, emen ere Ignaziok persekuzio gogorra igaro zuen.

Alere Jainkoak txit konsolatu, ta bere etsai salatzailei pozik aurrea artu zien. Paris-ko Inkisidoreagana, bera joan, da Ignazioren biziera ta Ejerzizioak txit kontuz, ta estu esaminatzea, Santuak eskatu zion. Inkisidorea guziz ondo informatu zan: da Ignazioren inozentzia kulpagabea mundu guziari agertu zion, da onraz, da alabanzaz beterikako testimonio firme bat, beak bezala, etsaien kontra eman zion.

Ignaziok agiri andi au, besteak bezala, kontuz gorde zuen, ez bere, ezpada Jainkoaren onragatik, eta aren Ejerzizio dibinoak ta dotrina mundu guziari libreago ta seguruago erakusteko.

Egia onela agertu, ta Ignazio, ta bere Lagunak mirarizko animen egorria beren Ejerzizio, platika, ta ejenploetan erakusi, ta Jainkoaren frutu ugaria ateratzen zuten. Denbora onetan Jainkoak bere Ignazio maitea, beste persekuzio gogor, ta bere penitentzia, ta obra santuen artean, bere eskutik erregalatu nai izan zuen.

Estomagoko alditxar, ta miñ, edo oñaze bizi batzuek eman zioten: txit estutu, ta argaldu zuten. Jainkoak ala nai, ta Medikuak erremediorik arkitzen etzuten.

Azkenik, bere borondatearen kontra bazan ere, Paris-tik irtetera, ta leku aldatu, eta bere aire nataletara biurtzera obligatu zuten.

Medikuen ordena estu ta Lagun santuen erregu poderosoai obeditzeagatik, bere Azpeitira len baño len etorteko animoa artu zuen.

Bere Seme maiteak utzi bearra, neke, ta miñ andia zan; baño bere borondatea baño Jainkoarena naiago zuen. Bere gaitz, ta nekeen artean bere oriek konfianza osoaz Jainkoari, bere Biotzean, edo amorio santuan firme ta sendoro gordetzeko agindu ziozkan.

## ZAZPIGARREN §.

### Nola A. S. Ignazio Azpeitira etorri zan.

Paris-tik irten baño len, bere Lagun santuai esan zien: Relijioko beren botoak ondo gordetzeko lezio, meditazio, ta orazioa egunoro, ta gauoro konzienziako esamiña, kontuz egin zezatela: Aita Fabro Sazerdotea, beren Aitatzat utzitzen ziela: onekin zortzian beñ, konfesatu eta komulgatu ziteala: Jainkoaren amorioan guziok anima bat, ta biotz bat egin, da zeruko azaña gloriosoetako beren Ejerzizio, ta estudioakin prestatu bizi ziteala.

Ebanjelioko konseju oek eman da Ignazio ere prestatu zan. Ononko bere biajea oñez egin nai zuen: baño nola txit argala zegoen, nai ta nai ez bezala, Lagunak zaldi bat billatu zioten; baño gutxi baliatu bide zan; da berreun da ogei ta amar leguak, Paris-tik onara oñez ibilli omen zan.

Nekezko bide onetan, Ignazio Jainkoaren izenean obra on asko egiteko sartu zan. Neguaren biotzean asi zan: da alere aren biotzeko sugarrak guzia garaitzen zuten. Bideko kontenplazioan Jesus ta bere Amaren, zer kolokio dibinoak ta faboreak aren biotzean igaro ziran, nork daki?

Paris-ko bere Laguntza edo Landare berriaz, zenbat bider oroituko zan? Jesus onak zer atsegiña Ignaziori emango zion, onek aren argian ikustean Landare gazte ori Paris-tik laster Erromara leku-aldatu ta munduaren lau parteetan, Jesus-en Konpañia zeñ biziari ta ariñ zabalduko zan!

Neke andi guzien ondoren, zer Jainkoaren gloria, ta animen irabazia bere egunetan ikusi bear zuen! Zeruko erregalo oiekin, ta bere erriko aireen alderontz, geldika, ta beti pizkortuaz, gure Probinzia ta bere Azpeitira alderatu zan.

Lurreko onra usiarik nai etzuen; zerura begira bizi zan. Alere Azpeitiko ongietorri prestu seinalatuak Santua, nai, ta nai ez arrapatu zuen.

Legoa biz Azpeitira baño len ostatuan sartu zan. Gero Joan de Egibar, Loiolaren urrengo auzo, ta Erriko Jaun prestua ala bearrez Jainkoak ara eraman zuen. Ostatuan iñor zan onek galdetu ta Estudiante bat gizon santua zirudiena, ta bere izkeran alde oietakoa, gela batean zegoela esan zioten. Egibar ori ara joan, da zirritu batetik begiratu, ta orazioan, da txit debozio andian ikusi zuen. Berriz begiratu, ta anziñako bere adiskide andi Ignazio zala txit ondo ikusi zuen.



Bere zaldia artu ta lasterka Azpeitira etorri, ta Erriko Jaunari, ta Santuaren senideai guzia kontatu zien. Onan prodijio ta obra milagrosoen fama miragarria orduko banatu zan, da Ignazioren etorreraz guziak atsegin andia artu zuten.

Etxe onetako jendeak bidera irteteko prestatu ziran: Erriko Sazerdoteak, ez lurreko gizonaren, ezpada zeruko Santuaren gisa Ignazio kalean artzeko, prozesio bat ordenatu zuten.

Errespetoko Sazerdote bat aurrean bialdu zuten, Ignaziori esatera, Loiolako Etxe estimatua, ta Erri guztia, ainbeste urteren buruan onara zetorrelako, poz andiarekin aren zai zeuden.

Santu umillak orrelako onretatik iges egiteko, bakar, da isil sartu nai zuten. Emengo Jaunak ezagutu zuten ondo, Kamino erreala utzi, ta bide baztarretik iges ibilliko zala; ta gizon batzuek mendi aldetara bialdu, ta orietatik Ignazioren pausoak jakin ziran.

Sazerdote Jaun ori topatu zuenean pena andia artu zuen; da bear bezala, salba, ta agur onak egin, da bazter bazterrean ezkutatu zan, ta Errironz artu zuen.

Orregatik iges egin naiez, onraz beterik ikusi zan. Bideak orduko jendez bete ziran; batzuek zaldiz, besteak oñez, ta Abadeak beren prozesioan.

Estimazio andi onekin, lotsaz beterik, bere Azpeitian sartu zan. Bere jende, Aide, ta besteak Etxe onetara ekarri nai zuten. Al egin guztiak onetarako egin da ere Ignazio, pobre umilla bezala, guziak utzirik Madalenako, ta Jesus-en pobreen Hospitalera zuzen joan zan. Onelako egoerarik bere senideai gogoratu etzitzaien da emen uste zuten. Arriturik gelditu ziran: garrazki beren sentimentuz kejak eman ziozkaten: ofensa ta lotsa andia zutela, zeren beren jaiotetxea an utzi, ta Madalenara zijoan. Santuak modu onean esan zien: Jesu Kristogatik pobre egin zan ezker, onen pobreen etxea besterik lurrean etzeukala, ta besterik nai etzuela: eta munduko puntu banoak txit era onean bere jendeai utzierazo ziezten.

Hospitale santuan Ignazio egon zala gauza zierto, ta klaroa da: ala Papebrokioak Autorerik grabeenakin, da Erromako Konsistorioan Kardenalak garbiro esan zuen: Ignazio Madalenako pobreen artean iru illabetean egon zala: ta eskean limosna bildu, ta obra santuetan denbora ori irago zuela. Bere Aideai aurea artu ta klaru esan zien: Jainkoak Azpeitian zeukan artean Madalenan egon bear zuela.

Paris-tik ekarri zuen zalditxo, bereala Madalenako pobrei eman zien; da egur karreo ibilli ziran: da Santuaren memoria karga orretatik libratu larrean bere erara ill artean ibilli zan.

Etorri zan biaramonetik Santua atez ate limosna eskatzen asi zala, gauza ziertoa da. Añ zierto ezta egunen batzuek Loiolan igaro zituela, Seguruena da gau bat emen egin zuela.

Sentimentu bizia senideak erakusten zuten, zeren Ignazio pobreen gisa ala zebillen. Bere aide deboto bat belauniko jarri ta Santuari erregutu zion: arren da arren, Jesus onaren pasioagatik Loiolara etortez mesede egin ziozala. Jesus-en amorezko penak aditu ta Ignaziori biotz guzia urtu edo erdiratu, ta etorriko zala agindu zion.

Ala illuntzean bere etxe onetan sartu, ta bere jende guziak deitu, ta zeruko platika bizi bero bat egin zien, lurreko banidadeak utzi ta zeruko egia, ta bizitza txit gogotik artzeko.

Debozio andi, ta negar gozoakin guziak aditu zuten: da afaldu, ta Etxeko lekurik onenean lo egiteko utzi zuten. Baña Santuak gau guzia orazioan igaro, ta goizean goiz, oiko erropa arrotu, ta Madalenara biurtu zan.

Ori guztia desonratzat Aideak artzen zuten. Estu, estuan eskatzen zioten, emen Loiolan ezpazan ere, kalean aidere baten etxean egon zedilla, ta guzien onraz begira zezala.

Berriz ta berriz kejak samiñak Santuari eman ziozkaten, ala bere Etxea utzi, ta Madalenara biurtu zalako. Baña Ignaziok firmeza osoarekin esan zien: Jainkoa serbitzeagatik, mundua nik utzi nuen: orañ zuen etxean egotea, mundura biurtzea deritzat, ta emen or baño obeto, Jainkoa arkitzen det.

Propositu sendo au ikusi, ta Aideak emendik Madalenara bear zan oieko erropa bialdu zioten: baño ango guziak zekusten da testimonioa eman zuten, goizoro erropa arrotu, ta erabiltzen zuela; baña lurrean zurpuska bat buruko zuela, Santuak lo egiten zuela.

Janari ugaria egunoro bialtzen zioten; baña zan guzia, ezer probatu gabe pobrei ematen zien. Kaleetan biltzen zuen limosnatik pobrei onena eman da adiñomena berak jaten zuen.

Askok debozioz Santuari bezala limosna andiak eman, eta bere pobreentzat ziran beti.

Arloren batzuek ikusi, eta erropak orientzat biltzen zituen: eta Santua ondo beartua egonik, batere beretzat gordetzen etzuen.

Egiteko santu oietan Ignaziok pozik jarduten zuen. Nola bidean ere zerbait pizkortu zan, bere egurasa edo Azpeitiko aire natural edo gizo onean gozatuaz zijoan.



Indar puska beregan sentitu zueneko, lengo bere penitentzia gogorretara laster biurtu zan. Len munduko bizitza egin zuen Jaioterrian, orañ penitentzia egin nai zuen.

Burnizko katea barrendik, eta aren gañean zilizio latza janzi zuen: disziplina gogorrak, betiko barau egunak, lo gutxi ta gau guziena orazioan zijoakion.

Txit estu, ta biotz guztitik Jaunari eskatzen zion Azpeitian orduan ziran pekatariak bere Ontasunagatik egiaz konbertitu zitzala: asko txit agirian gaizki bizi ziran.

Jainkoak bere Ignazio maitea entzun zuen: bada aren gabazko orazio, ta negarren frutua egunaz ateratzen asi zan.

Bere penitentzia andi, obra miragarri, platika santuarekin Madalenan, ta erriko leku askotan anima galduak irabazi zituen.

## ZORTZIGARREN §.

### A. S. Ignaziok bere Azpeitian egin zituen marabillak, profeziak, milagro ta konbersioak.

Udaberria zan, ta Ignazio bere erriko lurrian zeruko lore eder, edo landare frutu gozoz bete agertzen asi zan. Jainkoaren Misionero, ta zeruko Mandataria bezala, gañazko bere orazio, ta negar samiñakin, pekatari galduen biotz leorrak Madalenatik, zeruko euri ugariak bezala irrigabiatzen, da biguntzen zituen. Egunaz, bere Dotrina, ta Sermoiakin argitzen, da berotzen zituen. Bere jakindeak fama andia, ta errespetoa Ignaziori ematen zion. Merezi zuen; bada Paris edo Sorbonako Maisu graduatua zan: jakintasunak baño ere aren bizierako santutasunak merito, ta indar geiago zuen. Dotrina kaletan erakusten asi zan: ori mirarizko gauza berria zan.

Anaiak mutillakin Ignazio ikusi, ta desonratzat artu, ta esan zion: alperrik zabilta: jenderik etorri ezta. Baña Santuak zelo bizi batekin eran-zun zion: mutiltxo bat Dotrina ikastera etortea, bakarria badere, ditxa andia da neretzat. Anaiak ori uste, ta esaten bazuen ere; ez gutxi, ezpazan asko zetozen; ta ez mutillak bakarrik, baita andiak ere, erriko gizon da andre nagusien, da nobleenak ere. Zeruko Dotrina, konseju, ta Platikakin guziak bere ondoren Jainkoaren bidean sartzen zituen. Guztiak begizko testiguak bezala Ignazioren ejemplo ikusgarriai begiratu zioten, eta orien usai gozoak animak erakartzeko indar suabe poderosoan zuten.

Jainkoak bere gloriarako, ta Ignazioren biziera, ta dotrina onratzeko, zeruko profezia, edo etorkizunen argi milagrosoak, aur txikien garrean eman ziozkan. Dotriñan beste mutillen artean, zortzi urteko, Franzisku zeritzan bat bere amarekin zegoen. Onek Santuari esan zion: Aita, aur oni bere bendizioa eman bioza, Jaunak nere konsuelorako ondo gorde dizadan. Santuak semeari ondo begiratu, ta esan zion: Seme au luzaro biziko da, ta ume asko izango ditu. Ala ikusi zan. Larogei urtekoa ill zan, da amabost ume izandu zituen.

Martin zeritzan beste mutiltxo bati Santuak orazioak galdetu ziozkan. Motela zan, da ez arpegi, edo grazia onekoa: erantzuteko, nola bisaje txarrak aoaz egiten zituen, an zeuden Etxandrerren batzuek farrari eman zioten. Santua orietara biurtu, ta esan zien: zeri farra egiten diozute? Jakizute, bada, arpegi ona ezpadu ere, anima ondo ederra daukala. Onen



edertasuna egunoro andiago izango da. Gero Jaunaren Sazerdote señaletu, ta errian probetxu andikoa, ta zerurako anima asko irabaziko dituen, izango da. Aur au denboraz birtute andiko Sazerdote, animai Azpeitian asko lagundu ziena izandu zan.

Astean iru bider Madalenan, ta Igande, edo Jaietan bere Parrokian Santuak predikatzen zuen; da alako zelo, espiritu, ta jendeen debozioarekin, non da orien premiaz ordu bi, ta iru sermoiean igarotzen zituen. Jendeak beti gustoz, atenzioz, ta beren kulpen negarrez beti urtutzen. Santu bat begiz zekusten, ta Jainkoaren poderiozko milagro andi bat. Bada Ignazio noblea, len aberatsa zana, Jesu Kristoren eskeko pobre: ta len soldadu baliente zana, orañ penitente ejenplar, ta Apostoloen gisako Predikadore egña ikusten, da enzuten zuten. Alde oietan Santuaren ots, edo fama andia banatu zan; eta jenedi asko Azpeitira zetozen, zeren Sermoi guzietan milagroren bat, edo asko ikusten ziran.

Elizan ezin kabitu, ta kanpoan predikatzeraz Ignazio obligatu zan. Nola añ argal, da erizamar zebillen, da askotan kalenturakin, boza ateratzeko indarririk etzeukan. Alere Jainkoaren milagro, edo grazia zan, ordu bi ta iru predikatzen egotea, ta txit urrutitik ere jendeak ondo enzutea: irureun pauso urruti zegoen lekutik, edo Enparan garaikotik ere Santua Madalenan enzun zala, esan oi da. Zeruko prodijioa zan. Santuaren umildade, ta espiritu miragarriak Azpeiti, edo jende guziak arriturik utzi zituen; bada bere lenengo Sermoi modu onetan asi zuen:

Nere Jaioterri au Jainkoagatik, nere ustez, sekulako utzi banuen ere, Jaunak berak Azpeitira nakar, osasunaren, da nere animako pakearen billa. Konzienziako arrak beti txit estutu nau, gaztetan emen eman nituen ejenplo gaiztoagatik: orañ ejenplo onen batekin, lengo gaiztoak borratu nai ditut. Emendik joan ezkerorlon barkazioa negar, ta penitenziakin billatu det. Orañ zuei gaztetan eman nizuten eskandaloen barkazioa eskatzen dizutet, eta nigatik ori Jainkoari eska zaiozutela. Nere ejenplo gaiztoakin iñor galdu bazan, nere penitenziako onekin, beren kulpagatik berak egin dezatela.

Onela Ignaziok bere lenengo sermoi andia asi zuen.

Bere biotzeko pena, ta negar samiñakin au guztia esaten zuen, da an ziran guztiak negarrez urtutzen ziran. Miragarrizko umildade onekin asi zan; da Konseju dibinoak diona Sermoiaren asieran bere burua akusatu zuen; gero libertade osoarekin besteen pekatuak agirian akusatzeko. Oiek Azpeitian da alde oietan jakiñak, asko ta itsusiak ziran.

Karta-joko, ta dadoetan jendea txitez itsua zegoen, da Jaunaren ofensan, denbora, dirua, ta animak askok galtzen zituzten. Ignazioren

espiritu, ta sugar biziak bizio orien, da juramentu, birau, ta gaiztoai otsegeteko usadioaren kontra predikatu zuen. Jendeak beren kaltea ezagutu, ta Sermoi egin da bereala, karta, ta dadoak ibaira bota zituzten: da urte askoan Azpeitia guzian, kartak eskuetan artzen iñor ikusi etzan. Joko, juramentu, ta madarikazioak aienatzea prodijio andia zan; baña andre askoren erremedioa txikiago izandu etzan. Traje gaizto, ta banidadari emanik txit asko bizi ziran. Santua orien gañean enzun, da negarrari berriro eman zioten, ta biotzeko damuz buruko illeak ere atera zituzten: beren etxeetara biurtu, ta soñeko onestoak artu zituzten.

Aszensio egunetik Espiritu Santurño bere sermoien gaia, amar Mandamentuak erakustea artu zuen. Bat egunoro esplikatu, ta aren kontrako bizioen gañean predikatzen zuen, guzien biotzak Espiritu konsolagarria artzeko ondo presta zitezten. Lenengo egunean Jainkoaren amorio santua esplikatu, ta indar eragille batekin guzien animetan pekatuen kontrizioa josi zuen: anima oriek bere eskuan, da bere erara zeuzkala zirudien. Jainkoaren onragatik zebillen Ignazio, ta onen eskuetara guztiak berak zekartzien. Ala, beste egunetan ere, milagrozko konbersio asko egin zituen. Erriko eskandalo; ta beatztopa itsusiak kendu zituen: irak, ase-reak, gorrotoak sustraitik atera, ta Jaunaren pake ederrean gizon asko adiskide egñik txit ondo utzi zituen.

Seigarrena predikatu zuenean, bere espirituko indar guzia, lujuriaren kontra armatu zuen. Bizio onetan, infernuko lokaitzean bezala, sarturik zeudenen desditxa itsua begien aurrean ifiñi zuen. Andre galdu jakiñ asko, egiaz Jainkoagana biurtu, ta bizimodu santuan sartu ziran: Orien iru txit señaletuak: bi beren pekatuak damuz beterik, Jauna billatzera urruti batera joan ziran: bestea, zeren orretarako indarririk etzeukan, Hospitale batean, pobre, ta eriak serbitzeko bizi guztiko sartu zan. Ignazioren zelo, ta mirarizko animen salbazioaren egarri bizia Dotrina, ta Sermoi guzietan ikusi zan, da Jainkoak milagro publikoekin onratu zuen.

Azpeitikoan iritzian sekulan erremediatuko etziran asko, egiaz Jainkoagana biurtu ziran. Beste asko beren salbazioaren ustegabe, ta etsirik bezala zeudenak, Ignazioren prodijio, ta zeruko argi bizi, beroakin, beren kaltea ondo ezagutu, ta biotzeko damuz desegin, da penitentzia, ta bizitza berria egitera bereala gogoz animatu ziran. Santuak Jesus-en soldadu balienteak bezala, bizio guztien kontra lazki peleatu zuen, da animak deabruen zarpetatik atera, ta beren Jabe Jainkoari ditxa andiz eman ziozkan...



## BEDERATZIGARREN §.

### Azpeitian A. S. Ignaziok egin zituen Milagro, ta obra santuak.

Azpeitiko animetan Erriko bizio, ta gaitzak, arantza, ta larrak bezala, sustraitik atera, ta Ignazioren zeloak birtuteak erraz ereñ, da frutu ederrak eman zituen. Lenengoa, Aldareko Sakramentu dibino, edo Jesus-en Biotzari zion debozioagatik, Santisimoaren Kofradia jaso, edo fundatu zuen. Jesukristoren pobrei zien amorioak Miserikordiazko obra andia orduan asierazo zion. Erregla ipiñi zuen orientzat limosna eskatzea: Igan-deetan atez ate biltzen zana, lotsazko pobrei ematea. Loiolako bere Etxe onetakoai, dio A. Garciak, amabi ogi igandeoro ematea enkargu andia utzi zuela, Santisimoaren kofradia, ta pobreen limosna obeto seguratzeko, bere al zuenetik errenta on bat fundatu omen zuen.

Gero Erromako gisa, Santuak zion bezala, goizean, eguardian, da arratsean, Abe Maria erreztatzeko kanpai señaleari emateko usadio santua bere Azpeitian ipiñi zuen: oro bat Purgatorioko animen, da pekatu mortalean zeudenakgatik orazioa egiteko señaleari. Ignazioren zeloak guzien onerako atera zuen frutu milagrosoa, Erri noble onetan egin ziran agiri edo informetan ederki ikusi zan. Bere obra santu guzietan Jainkoaren onra nai ta billatzen zuen: Ala beti bere fabore zuen. Bere errian Profeta andi estimatua izandu zan. Santuen artean gutxiren pribilejio bakar au Jainkoak Ignazio bere adiskideari eman zion. Onek bere Erria ustez betiko utzi zuen: da Jaunaren borondateak onara ekarri bazuen ere, beste erririk bazan bezala bere Azpeitiari begiratu zion; da zeruak emen bere milagro andiak onratu zuen.

Madalenako Etxe Santuan Bastida zeritzan eri triste bat urte askoan biotzeko miñ gogor bat oi zuena zegoen. Askotan txit ematen zion, da indar latzarekin: bere burua puskatzeko zorian, gizon askoren artean ozta errenditzen zuten. Beñ, Ignazio an zegoela furia andiagotz eman zion. Santua aren gaitzaz lastimatu, ta eriaren eskua artu zuen: da begiak eta biotza zerura altxatu, eta orazio labur bat egin zuen. Eria buruan ukitu, ta bestegabe bereala sendatu zan. O Jaunaren esku milagrosoa! Urte askotako erremedioak egin etzutena, Ignazioren eskuak bertan egin zuen. Lo pisu batetik bezala begiak argitu, ta osoro sendatu zan: eta bere bizian miñ orren arrastorik ere sentitu etzuen. Milagro andia izandu zan au.

Baña marabilla txikiago izandu etzan, Santuaren eskugabe, Santuak ikututako gauzak emen egin zuena. Estimazioko Andre batek urte askoan beso bata igarturik zeukan: ezertako ezin baliatu, ta erremedioen artean alperrik ibilli zan. Oni sendatzeko fede ta esperanza bizi batek eman, da Santuaren erropia garbitzeko debozioak eman zion. Erropia garbitzen asi, ta uste, ta nai zuen bezala, besoa sendatu, ta indar txit andia Santuak emanik, betiko sendatu zuen. Milagro oien fama banatu zan, da beste erri, ta urrutietatik ere gaxoak Santuagana sendatzeko zekarziten.

Zumaiako Etxandre bat sukar bizi, ta barrengo etika edo tisika baturik zeukan, da txit nekez, ta iltzeko zorian bazegoen ere, Azpeitira Santuaren, da osasunaren bila ekarri zuten. Ignazio predikatzen zegoen; ori enzun, da eri ezur uts ori aren aurrean jarri, ta esan zien: Begira, Aita, nola nagoen: arren (zuak) zure bendizioa betor. Santuak nai etzukean. Baña arren errengu estuai, ta bere piedadeari begiratu, ta bendizio eman zion. Bertan beñgoan sendatu, ta Jainkoa bere Ignaziogan alabaten indartsu, alegere etxera biurtu zan. Andik laster Andre ori bere fruta, ta arraitxoekin esker onak ematera etorri zan. Santuak ezer artu nai etzuen; baño tristerik ez bialtzeagatik, artu zituen; da Jainkoak egin zion mesedea pobreena zala esanaz, beraren aurrean pobrei guzia pozik errepartitu zien.

Azpeitira urrutirik Andre bat gaizkiñak lau urtean zituena ekarri zuten. Konjuro askorekiñ len ezin bota ziran deabruak, Santuaren aurrean jarri orduko, siñu ta jesto itsusiak egiñ zituzten, da beren etsai andi, S. Ignazio poderosoak aterako zituelako bildur ziran. Onek Gurutze santua buruan egin zioneko, an ziran demonioak aienatu ziran, ta Andrea libre ta kontentu gelditu zan.

Beste gaizkiñak zituelako Andre bat geroago ekarri zioten: furiaz beterik izugarritzko biajeak egiten zituen. Santuak zeruko argiarekin ezagutu zuen, gaizkiñak barrenen etzituela; ezipazan kanpotik ala ikarutzen zutela. Ignaziok Gurutze santua buruan egin, da deabruzko somorro gaizto aietatik Andrea betiko libratu zuen. Ignaziok onelako milagroak besteen onerako egiten zituen.

Bitartean Jaunaren erregalo, ede gaitz andi bat berak, ta orretan pazienza asko bear izandu zuen. Gaxotu zan, da sendatzeko, bere Etxe onetara ekarri nai izandu zuten. Baña ark bere pobreen artean egon nai zuen. Alere Doña Maria Oriola, ta Doña Simona Alzaga bere illobak, gaitz orretan serbitzeko bien erreguz, artu zituen: da biai beren debozioa, fabore, edo prodijio eder batekin Jainkoak pagatu zien. Gau batean Santuari argia utzi, ta beren gelara zijoazen. Onek argia itzaltzeko esan zien. Illobak berriz, zer gerta ere, argia obe zuela, Osabak esan zien: argi bea-



rrik bada, ori Jainkoak bere eskuan dauka. Ala illobak illunbean utzi zuten.

Santua orazioan jarri zan: da amoriozko sugarretan biotza berotu, ta suspirio, ta afektoak zeruronz botatzen asi zan, Illobak, nola kontuan zeuden, zer ote zan, lasterka ara joan ziran, da atea idiki, ta Santua argitasun ederrez, ta gela guztia zeruko argi gozoz beterik ikusi zuten. Jainkoaren erregalo au ala agertu zala, Santuak ikusi, ta illobai txit enkargatu zien: an igaro zana iñori sekulan ez esateko. Baña santidade, ta debozioko gauza nola zan, pozez beterik, luzaro ezin gorde, ta milagrozk fabore ori bereala publikatu zuten.

Onelako Milagro ta, erregaloakin Jaunak Ignazio bere Azpeitian onratu zuen: da emengo obra santuen artean, esan oi da gero Minerbako, edo Santisimoaren Bulda Erroman atera, ta Azpeitira bere induljenziakin bialdu zuela. Gauza zierto jakiña da, illero Minerba, edo irugarren igande orretan Jesus-en Biotz maitearen, da Kristoren Eskolako Komunio, ta Ejerzizio ederrak orañ beti zelebratzen dirala.

## AMARGARREN §.

### Azpeititik Veneciara nola Santua joan zan.

Aita S. Ignazio emen sendatu zanean, Lagunetara joateko animoa artu zuen. Aideak, ta beste jendeak Azpeitian nai zuten. Baña Jainkoak bestetan nai zuen. Despedida tristea egin, da Aideak bide puska batean lagundu zioten; baña Etxera laster bialdu zituen. Bakarrik, eta oñez Ignazio Xabier-ko Palaziora igaro, ta an Santu Xabier-en egiturak zuzendu zituen. Andik Lainez, ta Salmeron-en gauzak argitzeko, Gaztelara igaro zan, da Valenciara gero pasatu zan. Emen Martin Perez-ko kontuzko gizon andi batek Ignazioren Santidade, ta marabillak publikatu, ta esan al baño estimazio, ta debozioa andiangoa artu zuten. Zeruko ale dibino Ignaziok bidez Valencian ereñ zuenak, andik urte gutxira, Kolejio famatu ederraren frutu ugariak animenzat eman zituen.

Valenciatik, ontzi desegin batean milagro Italiara allegatu zan. Gero Apenino pasatzeko, bere bizia galtzeko sekulan ikusi zuen perillik estueanean arkitu zan: ala Santuak esan oi zuen: da arrigarrizko nekeen artean, Boloniatik Veneciara igaro zan. An D. Esteban, da D. Diego Egia, Nafarrak eta Konpañian sartu ziranak, zerurako irabazi zituen. Esteban Koadjutore ill zan. A. Diego Jesuita baño len, Maisu estimatua, ta Sazerdotea zan, da txikitatik ere Aingeru bat, eta Diego santua guziak deitzen ziotena. A. S. Ignaziok txitez asko alabatzen zuen, da Lagunai esan oi zien: Zeruan gu ikusten geranean, Diego añ goiko alturan egongo da, non da guk betik ozta ikusiko degun. Diegok berak santu ta umillak bezela, esaten zuen. Ni kuarto falso bat, ta on askoren artean igaro ditekeana naiz. Egiazko umillak bezala zion: zerbait dala, uste duena, gutxi da; asko dala uste duena ezer ezta.

Aita Diego santu au Ignaziok bere konfesore artu zuen: da onen animaren berri besteak baño obeto ziekien. Ignazioren konzienziako gauzak, edo Jainkoaren pribilejio, doai ta fabore paregabeak aditu, ta Jainkozko atsegiñez beregan etzegoen, da Egia onek besteai kontatu ta arriturik zeuden. Uste zuten lurrean zegoen Ignaziogatik ainbeste mirari ezin esan, edo sinistu zitekeala. Ignaziok Egjari isillik egotea agintzen zion; baña Egjak zion; baldin Jainkoak Ignazio, bera baño lenago eramaten bazuen, ark santuaren marabilla andiangoak kontatuko zituela. Jaunak Ignazio umillari fabore au ere, nai bezala egin zion, da A. Diego zerura lenago era-



man zuen, da onek kontatu nai zitukean Ignazioren mirari andi guziak berekin eraman zituen.

Beste Aita Diego Hozes Letradu famoso, ta Malagako familia andietakoa, Venecian irabazi zuen. An Ignazioren Seme erregalatu, ta zeruko lenengo eskojitua izan zan. Diego au lurreko Konpañiatik zerukora, Jesuita guztien izenean gloriako menpe, edo posesioa artzera, lenengo Jesuita igo zan. Bitartean A. Fabrok iru Lagun, Paris-ko Maisu zebratuak, Claudio Jayo, Pasqual Broet, ta Joan Coduri juntatu zituen: eta Amar Lagunak Jesus-en Laguntza edo Konpañia zerurako jaso zuten. Orietatik Ignazio ta Jabier santu kanonizatuak: Lainez Salmeron, da Jaio Trentoko Konzilioan, Maiusuen ispilluak: Fabro, ta Bobabilla arako señalatuak: Dotore andi, Teolojia, ta Eskritura sagradua Unibersidaderek famatuenetan erakatsi zutenak.

Lagun guztiak, denbora gaizto, pobrezia andi, ta Erejeen arteko milla trabajuen artean Veneciara Jainkoak eraman zituen. An Ignazioren laztan gozoen artean, zeruko atsegin, da egiazko, da pakezko atsedean aldia artu zuten. Ignazio, ta besteak, urte onetan, da S. Joan egunean Mezaz ordenatu ziran. Meza berria emateko, ta predikatzeke, Jesus Dibinoaren gisa, Eremu batera berrogei eguneko Ejerzizioak egitera erretiratu ziran. Desiertotik Kristo bezala, Errietan predikatzerira irten ziran. (Meza berria). Beren pobrezia umill, Jainkoren zelo, Hospitaletako karidade, pekatari galduen egarri bizi, Ejerzizio, Dotriña, Sermoi, ta ejemplo santuakin, Erri andi askotan atera zuten mirarizko frutua, gogoan garria munduan beti izandu zan.

Orduan Espiritu dibinoak Ignazio, Fabro ta Lainez Erromara eraman zituen. Jainkoaren konseju altu ezkutatu bere biotzaren erdian jositik zeraman, Jesus maiteak agintzen zion egiteko edo obrarik ederrena bezala. Bijaie guztian Zeruko Erregiña bere Seme Dibinoarentzat Bitarteko artu, ta erregutzen zion, Ama maiteak bezala, bere Jesus-en Konpañiako Soldadu prestu fiel bat egin zezala: eta Aita Eternoari bere Semearen Konpañia dibinoan betiko alista zezala. Pensamentu gozo oietan bidean zijoala, egun batean Lagunai aurea artu, ta Eleiza batean sartu, ta Orazioan jarri zan. Ama Birjiñari, ta Aita Eternoari bere biotzeko eskaria beti bezala egin zion: da Jesus bere Kapitana Dibinoari Konpañia berri au, bere Biotz dibinoan gorde zezala eskatu zion.

Puntu artan sugar argi bizi bero batzuek Ignazio artu, ta biotza amorez urtu zitzaion. Besteetan oi zan baño ere geiago fabore andiagoren bat artzeko prestatu zan. Estasis dibino batean zeruko atek erdiz erdi zabaldu, ta gloriatzko edertasun guzian Aita Eternoa bere Semearekin ikusi

zuen, ta nola onek Gurutze pisu bat bere gañean zekarren, Aitak Semeari begiratu ta Ignazio bere Lagunakin, bere Biotzeko Konpañia bezala, bere anparoa, beti gordetzeko eman ziozkan. Orduan Jesus maiteak bere begi amorosoak biurtu, ta Ignaziori esan zion: *Ego vobis Roma propitius era*. Erroman ni zuen fabore izango naiz. Onela erregalo ikusgarri edo bisio ori ezkutatu zan. Santua, lotsaz, bildur, da konfianzaz beterik, ta Jesus-en amorezko su bizian urturik luzaro gelditu zan.

Begiz zekuzan Ignaziok, Kristok bere gañean zekarren Gurutze pisu gogorra Ignazioren, da Lagunen gañerako zala. Baña Jesus-en promesa ikusirik, persekuzio, ta tormentuen bildur etzan; ziranak desafiitzen zituen, da Jesus-en Gurutzea bere gañean nai zuen. Orretako Aitari, ta Semeari bere biotza ematen zion, da Ama Birjiñari, zeren ditxa oien atea zan, bera ta bere Semeak bere kontura. Lagunak etorri ziranen guzia irazakirik, ta alegriaz beterik, esan zion: Anaiak: Erromara Gurutze, ta tormentuetara goazen edo ez, nik eztakit; baña Kristorekin goazela, ta gure fabore au izango degula, badakit: eta ikusi, ta enzun zuena, kontatu zion. Onela irurak Erroman sartu ziran. Bereala Aita Santuaren ofietara joan, da txit amore onez ikusi, ta artu zituen.

Ignazioren zeloak, iru gizon andi irabazi zituen. Kardenal Contarini, Erromako jakintsuena, Dotore Pedro Ortiz, eta Francisco Estrada. Au Konpañian sartu, ta Ama Birjiñaren seme maite, Aingeru bat beti izan zan. Onek Ignazioren espiritua artu, ta gero bere sermoiakin eun Estudiante Bresan, ta beste eun Salamancan Relijio Santuetarako irabazi zituen. Amar lagunak Ignaziok Erromako Eleizetan errepertitu zituen: da beti bezala, animen konbersio milagrosoak, ta portentu andiak egin zituzten. Geronimo Roman fama andiko Autore Agustinoak eskribitu zuen, Jesuiten orduko marabillazko Dotrina, Sermoi, Ejerzizio, ta Konfesio, ta Komunioen userarekin, Erroma puntu batean mudatu zala. Judu ta Maometano askok gure fede santua artu zuten, da beste obra miragarri asko Ignaziok betiko jaso, edo fundatu zituen.

Españan, Franzian, da leku guzietan, esan diran, persekuzio ikaragarriak Ignaziok igaro zituen. Alere guzian azkarria Erroman obra santu orien ondoren ikuskizun zegoen. Pelearik latzen, da garratzena sufritu, ta Jesus persegituaren gurutze pisua artu, ta soldadu baliente, fiellak bezala peleatu bear zuen. Ereje zakur, ta Jesus onaren eriozko etsaiak, onen Konpañia laztanaren kontra jaiki ziran. Ignazioren, da bere lagunak kontra predikatzen asi ziran, da arrigarritzko gezur, da testimonio falsoz Erroma guztia bete zuten. Jende on guziak, eta gure debotoak ere ikaratu ziran. Alako desonra lotsagarri, ta infamiarik gizonak noaski ikusi ezte.



Ignazio umillak Jesus bere Maisuaren izenean da amorez, karga pisu, edo Gurutze andi ori isilik eta pozik zeraman.

Azkenik bere etsaien arteko Judas saltzalle batek Erromako Gobernariaren aurrera salatu, ta lotsarik gabe Ignazio eraman zuten. Santuak ondo gorderik berekin zituen Españaiko, ta ibilli zan beste leenetako, egiazko testimonioak, ta alabanza andiz beterikako sentenziak: baita bere lagun fabore Obispo Jaun askok emanak ere. Judas ori, ta bere lagun infernuko Erejeak Juezak gezurretan klaro arrapatu zituen: da gauza guziak ondo ikusi, ta enzun, da Ignazio kulpagabe arkitu zuen: da onen etsai gaiztoak iges joan, da ondatu ziran. Ignazio santua firme an egon zan, da Jainkoaren gloriarako, ta bere onrarako, bear zan sententzia publikoa atera artean, alerik atzeratu etzan. Juezak Ignazioren fabore, ta onen etsaiaren kontra sententzia ta agiria eman, da publikatu zuen. Kontrarioak iges joan, da aienatu ziran, da eriotza desastratuak izan zituzten.

Beste askoren artean, intenzio gaiztoz ezipazan ere, Kardenal bat Ignazioren kontra zan. Baña egia añ klaro ikusi zanean bereala, Jainkoak bere biotza mobitu, ta Santuaren oñetan belauniko jarririk barkazioa eskatu zion, ta geroz gure Konpañiaren fabore beti, ta adiskide andi gelditu zan. Onela Ignazioren pazienza, konfianza, balentia, bitoriak eta triunfo miragarriak beti agertu, ta ikusi ziran. Jesus bere Konpañian persegituak begietako ninia, ta bere Biotzeko joia bezala, bere Konpañia an gorde, ta pelea guzien zeruko koroa eman zion: bere Bikario edo Erromako Aita Santuaren aoz, ta Buldaz infernu guziaren kontra, garbi eder apañdua Jainkoaren gloriarako, mundu guziaren begietan arkitu, paratu, ta betiko seguratu zuen.

## AMAIKAGARREN §.

### Jesus-en Konpañia nola konfirmatu zan.

Milla, ta bosteun, ta berrogei ziran, gure Salbadorea etorri zala, ta urte orietan Eleiza santan Relijio eder asko Jainkoak jaso zituen; eta gure Konpañia ezker ere asko fundatu dira. Ignazioren zela Aita Santuak ikusi, ta esan zion: Jaunaren gloriarako aren Lagunaz baliatu nai zuela. Bide onetatik Jesus maiteak gure Konpañia jaso nai zuen. Luzaro txit, ta biotz guztitik Ignaziok eta bere Lagunak obra andi au eskatzen zioten, eta Erljio berriaren bizimodu labur bat eskribitu zuen. Au Contarini Kardenalak Aita Santuari eman zion. Oni txit ondo iritzi, ta aprobatu zuen. Bera gizon andi, txit jakintsua zan: da Jesuita berrien Santidade, jakinde, zelo, ta obra milagrosoak ikusi, ta Jainkoaren Bikarioak bezala esan zuen: *Digtus Dei est hic: Jainkoaren eskua da au.*

Relijio berrien kontrario latzak iru Kardenal ziran. Tranze estu onetan zeruko berri, ta Jaunaren borondatea obeto ziekien; gizonen arrazoi, ta trazak baño Jesus-en promesak indar geiago zuela. Ignazio Trinitade Santisimoaren txit debotoa zan; da kontra ziran iru gizonak bere fabore ekarteko, iru milla meza ofrezitu ziozkan: eta iru Kardenalak Jainkoak milagroaz giratu, ta Konpañiaren deboziora biurtu ziran. Gogoangarrizko mudanza au, Aita Santuak, eta Erroma guziak ikusi zuen. Ignazioren mirarizko orazioak obit erraz, ta txit laster, nai zuen guztia egiten zuen. Ala Paulo Aita Santuak esan dan urtean, S. Kosme, ta S. Damianen egunean, solemnidade, ta debozio guztiarekin gure Erljio edo Jesus-en Konpañia kanonizatu, edo konfirmatu zuen.

Jainkoak bai ta bestek eztaki, zorioneko Ignazio gloriosoaren biotz guziz nobleak egun artan zer sentitu zuen. Santuak ainbeste orazio, ta negar, ainbeste barau, azote, zilizio, biaje ta neke; ainbeste akusazio, ta testimonio falso; ainbeste kartzela, katea, lotsa, ta pena, egun orren billa eraman, da igaro zituen: da orduan ditxa andiz, bere Jesus-en Obra akabaturik, edo Konpañia berria Jainkoaren aoz konfirmaturik ikusi zuen. O Ignazioren zeruko atsegin, da gloria bizia! *Ignaziok, suak eta garrak botatzen dituen*, esan nai du: *Ignatius, ignem jaziens*. Su oriek zerurañoko bonbonadak munduaren lau parteetan ematen asi ziran. Ignazioren garrezko amorioak Aita Santu, Kardenal, ta Obispoak, Erregeak, Erriak edo Erreinoak Konpañiaren debozioran bereala banatu, ta irazeki zituen.





Jainkoaren mirarizko gauza, ta bear bada munduak ez beñ, da ez gero ikusi eztuena. Urte bete baño len Konpañia, edo Jesuitak Erromatik asi, ta Italian, Españan, Franzian, Alemania, Irlanda, Portugal, ta Indietan sartu, ta ainbeste milla leguan banatu ziran. Dotore Navarro famatuak alabanzako bere testimonio zebratuan diona: Konpañiako Kolejio Coimbran Erregek fundatu zuena, eun da geiago Jesuita gazteakin zala, ta guztiak arriturik milagro anditzat ikusten zutela: eta berreun da geiago Jesuita ejemplo, ta jakintasun andian an bizi izan dira.

Lenengo Lagun santuak penitenzia asko, ta orazio luziak egin, da boto guziakin A. S. Ignazio beren Agintari, edo Jeneral egin zuten: eta ill arteraño, edo amasei urtean, zeruko Erregla ederrakin gobernatu, ta Konpañia mundu guzian zabaldurik, ta milagro, ta gloriak beterik bere Semeetan, Jaunaren gloriarako ikusi zuen.

Santu Xabier, bere Anai, ta Seme maitearen Marabillak India guziak argitu, ta arritu zituzten. Amar urtean ainbeste bider eun milla anima Jesus onari irabazi, edo ezin kontatu ala milagroekin Santu paregabe onek Fede, ta Lege Santura ekarri ziozkan. Orrela Ignaziok bere Semeak alde guzietara bialdu zituen.

Bera bitartean Aita Santuaren enkarguz Konpañiako Erreglak eskribitzen jarri zan. Baña zer penitenzia arrigarri, ta orazio luzeen artean! Relijio santuen Erregletatik guretzat egokienak artu, ta bere Konstituzio, mundu guziak admiratu dituenak, atera zituen. Erregla santu oietatik bat bakarra berrogei eguneko orazio, negar, da penitenziak kosta zitzaion. Zer kostako zitzaiozkan beste guziak? Esan diran penitenzia, ta negarrak gañera, Erregla bakoitza Mezatara berekin eraman, da Jainkoari biotz guztiaz ofrezitzen zion. Argatik Santu Borja andiak esan oi zuen: Gure Erreglak obra dibino, edo Espiritu Santuarenak zirala. Ala Ignazio oriek eskribitzen zegoela, sugar bizi eder bat Apostoloen gañean bezala, Ignazioren buru gañean Espiritu Dibinoa ikusten zan.

Ignazio Erromako Jesus-en Etxe Profesan bizi zan. Etxe oni Santuaren Sekretario estimatu, A. Polancok Jesus-en Konpañiako Biotza, Burua, ta Estomagoa deitzen zion; zeren andik guzia bizitzen asi zan, andik gobernu, edo bide zuzena, eta andik Konpañiako Gorputzak ondo bizitzeko bear zituen alimentuak, zeruko Erregletan artu, ta errepartitzen ziran. Andik Ignazioren Seme Santuak espiritu bere bizia atera, ta bestiai ematen zien Ala Aita Santuak Españako Erregeari eskribitu zion: egun gutxian zer frutu andia Jesuitak animetan atera zuten, ezin sinistu zitekeala. Aita Santu Marzelo Jainkozko, ta jakinsuak zion: Konpañia bezala-

ko Jaunaren obra Ignaziok bezañ laster egin, edo jaso zuenik iñon ere ikusten, edo irakurten etzala.

Ignaziok ait biotzetik oi zion: Jauna: zure arpegi ederra zeruan ikustera igo baño len, iru gauz txit nai ditut, eta eman bear dizkidatzu. I.<sup>a</sup>, zure Ejerzizio santuak zure Bikarioak bere autoridade guztiaz aprobatzea, edo santutzat ematea: II.<sup>a</sup>, Zure Konpañia konfirmaturik ikustea: III.<sup>a</sup>, Zure Konstituzio, edo Erregla santuak, bear bezala egiñik ikustea. Iru gauzak Jesus amorosoak Ignazio maiteari bere egunetan bere gloriarako, ta Ignazioren onrarako, ditxa andiaz eman ziozkan: eta oriek nai bezala, egin da ikusirik lurtean, zeruan orien saria edo gloria artzera txit kontentu igo zan.



## AMABIGARREN §.

**A. S. Ignazioren gobernu miragarria,  
eta Trentoko Konzilio Sagradurako  
Seme Santa Teologoak  
zeñ ederki prestatu zituen.**

Bere kargura zeukan Jesus-en Konpañia zeruko Erregla dibinoakin Santuak gobernatzen zuen. Oiek Karidadean, zeña dan Jainkoa bera, fundatzen ziran. Mundu guztian zebiltzen Jesuitak amorezko Erregla onek bere erara berdindu, bat egin, argitu, berotu, ta nai bezala beregan mobiltzen zituen. Oiek Obedientzia, umildade, ta Jesus-en beste birtuteen libruaz janzi, ta denbora, ta leku guzietan agertzen zituen. Jesus gure Errege ta Kapitan bakarrak egunoro Seme geiago Ignaziori ekartzen ziozkan. Baña Aita Santuak, Obispoak, Erregeak, eta Erreinoak geiago eskatzen zituzten. Orietara ondo joateko Ignaziok bere amorezko espiritua ematen zien: eta Ebanjelioko Diszipuloen gisa, erri, ta leku guzietara, animak santifikatzera, txit seguru zijozten.

Paulo Aita Santuak Ignazioren marabillak ikusi, ta Eolo, edo Aize guztien Erregea deitzen zion; zeren suz, ta garrezko Kristoren Espiritu Dibino, Ignaziok beregan zeukana, Erromatik asi, ta munduko bazter guzietara amorezko egoakin bialdu, ta guztien biotzak abrasatu nai zituen. Espiritu irazaki ori bere Semeai eman, da esaten zien: Ea laster. Mundu guztira zoazte ariñ; eta Jesus onak lurrera ekarri zuen su bizian guzien biotzak irazaki itzatzute. Ala ikusi zan, da Ignazioren espirituak bere Semeak txit biziro zerabiltzkien; da beñere gelditu gabe, Jentil, Ereje, ta pekatariak su orren azpian irazaki, ta Jainkoagana biurtzen zituzten.

Zer frutu ugari milagrosoa Ignaziok Erroman, da andik bere Semeakin munduaren kaburaño atera zuen, Ignazioren Bizitzak, ta Autore askok diote ta luzaro. Erromako Gaztelutik infernu guziari erejia ta bizioai gerra bizia egin zien: Gizonik prinzipalen, da bearrenak Ejerzizioakin Jaunaren bide, ta santidade altuenera jaso zituen. Ango jakinsuen artean ondo jakiña zan, Ignaziok Italiano ondo jakiñ ezagatik, arekin jardun, edo aren Sermoiak aditu ezker, biotzak argitu, ta mobiturik seguru arkitzen zirala. An Aita Santuak, Kardenalak, eta beste, len Ignazioren kontra ziranak ere berengan sentitu, ta marabilla anditzat guzien aurrean esan, edo konfesatu oi zuten.

Aren Semeak berriz Obispo, ta Erregeak batera, ta bestera eraman, edo bialdu, ta Ejerzizioak emanaz, Katedretan erakasiaz, Pulpituetan predikatuaz, Hospitaletan eriak serbitu, ta animatuaz, iltzen lagunduaz: ainbeste Jentil, Ereje, ta pekatarien konbersio, ta milagro egin zituzten, non da oriek kontatzeak kaburik eztuen. Konbersio oriek berengan, da besteetan ikusi, ta jendeak arriturik geratzen ziran. Jainkoaren esku indartsu milagrosoa Ignazioren Semeetan, guziak eta leku guzietan klaro zekusten; da egun gutxian, erriak, ta errikoak Jainkoagana biurtu; ta besterik ziruditen.

Denbora orretan infernuko ereje infameak Eleiza Ama Santa beren errereakin txit agitz estutzen zuten: da Jainkoak bakarrak ematen duen pake santura ori biurtzeko, Aita Santu, gure Konpañia konfirmatu zuenak bere alegin guziak egin zituen. Trentoko errian Elizalzarre, edo Konzilio jeneral bat juntatzeko, iru Kardenal, ta Jesuita bi bere Teologo señalatu, ta ara bere izenean bialdu zituen. Maisu andi oiek ziran A. Diego Lainez, ogei ta amalau urtekoa, ta A. Alonso Salmeron ogei ta amarrekoa: biak Españolak: biak gazteak; biak Aita Santuaren Teologo eskojituak: fabore au guretzat esan al, edo pensa al baño andiagoa zan. Munduko Obispo ta Relijio santu jakinsuen artean, Erljio jaiio berri, edo gure Konpañiako bi Aita santuak, munduko bere egitekorik andienerako bere Teologotzat eskojitzea.

A. S. Ignaziok inork bestek baño obeto zeruko argian zekuzen onra paregabe au, ta orren ondorengo erejeen arrabia amorratua, bai ta ere obligazio andietako Maisu Katolikoen enbidia beltz itsusia. Katoliko debruak engañatu oien bildur zan, animetan oiek dakarten dañuagatik: Erejeen gezur, ta blasfemien Santua bildur etzan, bada oriek gure onra, ta ditxa andia dira. Baña Jainkoak Ignazio bere orazioan alde guzietatik seguratu zuen. Zeruko Junta Sagradu artara joan bear zuten Jesuitak, esan diran biak, eta Aita Claudio Jaiio, Augustako Kardenalaren Teologoa ziran: Ignazioren Seme gazteak, baña Santuen jakinde, ta umildade prudentez beteak. Alere ainbeste gizon andiren artean, lenengo izatea, gloria txit altua, edo geiegia zan. Enpeño arriskatua: zeren alako estimazioak lurreko gizonen biotzak aizatu, ta mudatzeko enkantu poderosoak izan oi diran. Orañ Ignazioren prudenzia.

Bere Seme maite biak Eleizaren enkargurik andien onetarako, bear bezala, prestatuak bialtzeko, egun askotako orazio luze, ta Ejerzizioak eragin ziezten, da Meza asko ezanerao zituen, Jainkoaren gloriarako bear zuten grazia, ta aziertoa Teologo biak izan zezaten. Aita amorosoak bezala, zeruko konseju, ta erreglak eman ziezten, Jaunarekiko, ta beren artean, da besteakin, Konzilioan sartu baño len, an bertan, da andik erten ezke-



ro, guzian nola jardun, edo portatu bear zuten. Esan zien Santuak, nola Aita Jaio Trenton laster uste zan: zuek ara joatean:

Irurok elkarrekin beti egon, da ibilliko zerate. Jaunaren gloria, ta borondatea gauza guzietan billatzeko iru abiso oiek zuen biotzetan, da obretan ondo gorde bear dituzute. Lenengoa: Konzilio, edo Espiritu Santuaren Junta sagradu artan, beraren grazia beti eskatu, ta billatu bear dezuten gauza bakarra da Jainkoaren onra, ta Eliza Santaren pakea. Bigarrena: Konziliotik irten, da animen salbazioa, guziaz lagunduaz, gure Erregla, ta Profesio santuak eskatzen digun bezala, billatzea. Irugarrena: zuen arteko pakea, ta amorioa, ta zuen perfezio, edo santidadeari txit kontuz begiratzea. Abiso au beste biak ondo gordetzeko guziz bearra da: zuen animaz astutzen zeraten egunean, ez Jaunaren gloria, ta ez animen ona egiaz billatuko dezute,

Ala gau oro batak besteari karidade, umildade, ta libertade santuarekin eskatu, abisatu, ta bakoitzaren faltak esan bear diozkatzute; eta bakoitzak bere faltak, eskusa gabe eta isillik enzun bear ditu. Urrengo egunean zer egin edo zer esan bear dan, gauro irurok esango, edo jardungo dezute. Goizean, Orazio, ta Mezaz gañera, Espiritu Santuari bere argia eskatu, ta egunoro biarretan esamen konzienziakoa kontuz egin bear dezute. Arratsean ordu jakin bat artu, ta Konzilioan tratatu diran puntuak, ta urrengoan tratatu bear diranak, ondo begiratuko dituzute. Junta Santuan galdetzen, edo esaten dana soseguz aditu, ta bear danean juizioaz erantzun: da itzezin bear danean, umildade ta modestia gorde: iñork senti dezakean gauzarik beñere ez esan: ez opinio berririk ekarri, ezpada sentenziak dituen arrazoi seguruak. Botoa eskatzen badizute, pakean da soseguz, zuen sententzia emango dezute.

Dotrina zuen estudioz, edo Jainkoaren argiaz dezentena, espazioz beti, edo atsedeten bezala, ondo begiratu bear dezute: eta abiso onek aziertorako asko balio du. Konziliokoa egin, da predikatzen, da konfesatzen denbora ondo irabaziko dezute: eta aur edo gazteai Dotrina amore onez erakasi: andiai Ejerzizio Santuak eman, beren estaduko bidetik Jainkoa billa dezaten. Gure gauza guztiak onetara zuzendu bear dira. Karidadez beterik Hospitaletan eriak konsolatu, ta umildadezko ejemploak emateaz, kontu ta deseo andia iduki bear dezute: Konzilio santua ondo irteke orazioa beti egitea guziaz kontuz enkargatu, ta guzien aziertorako Espiritu Santua etorri, ta gure biotzak argitu ta berotu ditzala.

Ignaziok Konziliorako bere iru Semeai eman ziezten zeruko Erreglak oiek ziraden, da zeñ ederki gorde zituzten, mundu guziaz ondo ikusi zuen. Eleizetako, ta Hospitaletako esan diran Doktrina, konfesio, ta gaxo-

en konsueloaz gañera, Alemaniako gerretatik goseak, eta otxak illik zetozen soldaduai ere karidade andiarekin, leorpea, jana, ta janzia eskean iru Padreak billatzen zien. Obra santu orien ondoren, Konzilio santuan sartu, ta beren sententzia arrazoi klaro, Eskritura sagradu, ta Dotore Santuaren Teologoak bezala, mirarizko modestiarekin esaten zuten. Maisu andi guziaz, Aingeruen jakindea, alako umildade zeloz betea ikusi, ta zeruko prodijiotzat admiratzen zuten. Aita Lainez, ta Aita Salmeron Españolak ziran, eta ori aditu, ta an zebiltzan Españolak ala ikusi; ta lotsatzen ziran. Baña Konzilioan gero ikusi, ta aditu, ta pozez arriturik, España guziaren onra paregabea zirala, zioten.

A. S. Ignazioren, da gure Konpañiaren zer gloria andia iru Padre oiek izandu ziran esatea, erraz ezta. Obispo Santu askok Konpañiaren berririk etzuten. Baña, nola Konzilioan oiek kontu eman, ta gure Erlijioa agirian ifiñi zuten, ta ori itzez baño, obra ta ejemploa ederrakin obeto ikusi zuten, gure Konpañiako armoniaz zoratu ta bezala zeuden, da Erejia, ta bizioen kontra, zeruko tuaka seguru baten gisa, berekin gure Kolejio bat eraman nai zuten. Ala Clermonteko Obispoak Kolejio bi fundatzeko gogoa artu, ta iru Kolejio fundatu zituen. Iru Padre oiekgatik Granadan, Murcian, Plasencian, da beste leku askotan fundatu ziran Dominiko Santu, Fr. Bartolome Bragako Arzobispoak bere Kolejio andi ederra fundatu ziegun, da gure Konpañia txitez biotzetik beti amatu, ta estimatu zuen.

Aita Araoz ezagunak Españatik A. S. Ignaziori eskribitu zion, emen zeuden Padre guztiak urte askoan baño, Konzilioko iru lagunak lau illa betean guretzat onra, da amorio geiago Españan irabazi zutela. Esan al baño prodijio andiagoa da au. Jainkoak Ignazioren amorez onen Seme santuak Trentoko Junta sagradura eraman zituen gure Konpañia Zirio irazakia bezala guzien gañean agertzeko, ta Ebanjelioko ziudadea mendi altuan erakusi, ta Konzilioko Santu guziaz ori ikusiaz etxeratzeko. Pribilejio bigarrenik ezteua: Jaunaren eskuon poderosoak fundatu zuen gure Konpañia, Trentoko Konzilio Jeneralean sendoro konfirmatu zuen.

Ori guziaz ezer ezpaliz bezala, Ignazioren su bizia geldirik ezin zegoen. Gure Erregla; Maisurik andienak milagrotzat kontatzen dituztenak, Konpañia mundu guzian, da armonia ederrean erabiltzeko, luzaro ta txe-txe eskribitzen asi zan: da orrez gañera gizon pobre persegitua izan bazan ere etorkizunen, da Jainkoaren Sekretoen berri ondo ziekiena bezala, sosegu andian Erejeen kontrako murru, edo geroz ditugun Unibersidadeak ondo gobernatzeko Erregla santuak eskribitzen jarri zan. O Jain-



kozko prodijio gizonen gañekoa! Ignazioren zeruko prudenzia ta zelo miragarriak Ereje lotsagabeak bere Erregletan, da Trentoko Konzilioan bene semeakin sekulako arritu zituen.

## AMAIRUGARREN §.

### A. S. Ignazioren obra miragarriak.

Amorezko su Dibino bat, guztia erre, ta konsumitzen duena da Espiritu Santua. Amorio eder ori Ignazioren biotz andian ezin kabitu, ta gañez eragiten zion, da Jaunaren zelo biziak, munduko lau parteetan banatu, taugar orietan anima guztiak erazaki, ta zerurako irabazi nai zituen. Erroman Ejerzizio santuakin Jaunik prinzipalenetan berak atera zituen frutu ugariak banaka esateak kaburik eztu. Emendik berak, eta leku guzietan bere Seme Santuak Sakramentuen usuera; zortzian beñ konfesio ta Komunioa sartu zuten; zeren Sakramentuen Iturri Dibinoan animak garbitu, ta salbatzeko bide segurua, ta bentajazko grazia artzen zuten. Emendik konzienzia gauoro, edo egunean bi bider kontuz esamiñatzea: Libru santuak irakurteko afizioa, edo lezio espirituala: orazioa egunoro, ta limosnak egitea: miserikordiazko obretan pobreakin jarduteko debozioa, ta guztiak beren estaduko obligazioai ondo begiratu, ta zuzen ibiltzeko, ta bere kargukoak erabiltzeko gogo santu eragilleak.

Ignaziori, dio Eleiza Santak, zor zaio Jaunaren Etxe, edo Tenploeta-ko aseo, edo garbitasun eder, ta apañdura, mirarizko ondasunetan geitu, ta erri guzietan aurreratu dana. Gure erri oietan, bear bada iñon ere baño geiago, Jainkozko prodijio au ikusten da Eleizetan, plazetan, kanpoetan, gure fede, ta lege santuko Dotrina txiki ta andiai erakasi, ta guzien biotzetan josi naia, Ignazioren enpeñorik nobleen, da agirierna beti izandu zan. Orañ ere gure Aita Jeneralen enkargurik estuena betiro ori bera da. Animen gose, ta egarri ezin ilko dan au Ignaziok len lurrean, da orañ zerutik bere Semeetan berdin bizierazotzen du: Jende nagusi, edo Etxe andietako Seme noble, edo gazte gizagaiak ondo azi, ta ezitzeko, ta Jaunaren bildur santuan, estudio, letra, ta dotrina guztian ondo erakasiak irte- teko, Ignaziok Eskola publikoak Kolejioetan idiki zituen, ta oriek gober- natzeko zeruko Erreglak eman zituen.

Kolejio Romanoa, mundu guzian agitz famatua, denbora orretan asi zuen, da jakinsu guzien Eskola izandu da: Latiña, Griegoa, Hebreoa, Retorika, Filosofia, ta Teolojia txit ederki an ikasten oi zan. Orren ondo- ren Kolejio Jermanikoa Ignazioren biotzeko joia txitez preziatua, ta Ale- maniako erejia guzien erio gogorra, Jaunaren onrarako jaso zuen. Mun- duko Andre galdu, edo gaizki ezkonduentzat, eta galtzeko peligroen



artean zeuden Donzellentzat, guzien animak seguratzeko Etxe sagradu, edo Konbentu bi jaso zituen. Umezurtza triste, ala neskatxa, nola mutilentzat beste bi, ta Katekumeno, edo kristau berrientzat beste bat. Misio santu jakiñaz gañera, Karzelak, eta Hospitalak ikustatzea: tristeak beren penetan konsolatzea, konfesatzea, ta ondo iltzen laguntzea Ignazioren gloria bizia zan. Jainkoaren onra, ta animen onerako Obra miragarri oiek-gatik Ignaziok persekuzio, ta neke gogorrek eraman zituen. Gure Eleizetan ainbeste Kristau on zortzian beñ komulgatzen ikusi, ta Ignazio ta bere Semeak persegitzeari Erroman eman zioten. Jesuitak erejeak zirala predikatzen zuten. Baña Aita Cristobal Madrid jakinsuari Dotrina eder seguruz beterikako liburu bat eragin zion, ta Santuak publikatu zuen, nola Apostoloetatik Eleizaren asierako fielak askotan komulgatzen ziran. Santu askok, guzien Maisu nere Santu andi S. Agustin gloriosoarekin ori bera erakusten dute: eta Kardenal Baronio andiak gure Eleizan ainbeste Kristau on komulgatzen ikusi, ta Resurrezioko etxea deitzen zion, zeren komulgatzeko uso santua, denbora luzean illa bezala egon zana, gure Eleizetan piztu edo berriotu zan. Milagro au Ignaziori zor zaio.

Aita Lugo Kardenal, Maisu txit famatuak kontatzen zuen Santa Teresari Jesus bere Esposo Dibinoak egin zion erregalo, edo Bisio ikusgarri bat. Au eskribitzen nagoen egun solemnea Korpus eguna da. Santisimoaren onelako Korpus egun batean zeruko ateark erdiz erdi Jaunak Santari idiki ziozkan, da ango gloria bizian Korpus Kristiko Prozesio guziz miragarri bat ikusi zuen. Aingeru, ta Santuen koru ederren ondoren, Palio guztiz prezioso bat gañetik zuela, Sazerdote Majestade guziaz apañdua, Jaun Dibinoa bere eskuetan zeramatela, eta Ama Birjiña aldean zuela, ikusi zuen. Santa zoraturik bezala begira zegoen, eta Aingeru batek esan zion: ditxazko Sazerdote glorioso ori A. S. Ignazio da: onra señalatu au gaur ematen zaio, zeren Santisimoaren amorioa ta Komunioren usue-ra bizirotu ta piztu zuen. O Zerutar guztien arteko Ignazioren gloria ta pribilejio bakarra! O Jesus Sakramentatuagandik iges dabiltzanen desdixta lastimagarria! Gure biotzean sartzeko amorez, gau ta egun gure begira Aldarean dago: ta Kristau asko añ itsu, fede, ta lege gabeak izango dira non Jesusen Biotzeko amorioaz, ta bere on guztiaz azturik orrenbeste bider komulgatu bear ezjala esango dutenak. O zer fede illa, ta amorio otza! O zer kristau esker gaiztokoak!

## AMALAU GARREN §.

### Jainkoaren da Ignazioren arteko amorezko enpeñoa.

Jaunaren konseju dibino, ta Probidenzia alto ezkutatuak Ignazio Aingeru baten gisa señalatu zuen, ta bere gloria, ta atsegiñik andieneko enkargu berriak eman edo agindu ziozkan. Obra andi oietan Ignazioren fineza prestuak bear bezala jardun, da guziaz kobru emateko argi eder, da rebelazio klaroak emanik, lendanik Jaunak erakutsi ziozean Jesus maitearen izenean, mandatu dibinoak ongi egiteko, zer neke andiak eraman bear ko zituen adierazo zion. Gizon argal bakar batentzat azaña latzak, ta indar guzien gañekoak, baña beraren graziarekin Ignazientzat guziaz errazak ziran: ala onen espiritu balentia aize galantarekin guziaz kabu eman, da Jesus-en borondatea beti egin zuen.

Enpeño txitez estuan amorio dibinoak Ignazio sartu zuen, Berariazko argi eragilleak Jaunaren Ontasun fin gabea, ta Ignaziorekiko amore, ta faboreak ondo ezagutuak zeuzkan: ori mundu guziaz beren animetan sartu, ta betiko josi arteraño, zer egin etzekien. Arri edo alzairu guztiak baño gogorrago ta fiñago Ignazio izandu zan. Jesus-en amorioa ondo ikusi, ta munduko tormentu, ta penak eramatea, aren biotz leial prestuarentzat guztia ezer etzan. Zertako argi, ta abiso dibinoetan lenagotik neke gogor orien barri ondo ziekien; baña orregatik ere aren amorioa guztirako prest zegoen: ala pobreza, goseak, egarriak, biajeak, nekeak, izerdiak, testimonio falsoak, afrentak, burlak, infamiak, lotsak, karzelak, kateak, ta eriotzaraño eraman zituen golpeak ta tratu gaiztoak, batere ikaratu, edo atzeratu etzuten. Trabaju oriek guztiok Ignaziok igaro, ta andiagoe egarri biziagoa zeukan. Aren pena guzien andiena zan, Jesus bere Jabe bakarra mundu guziaz Santuak nai zuen bezala ezagutu, ta amatu bearrean, ofenditurik ikustea.

Ignazioren desenpeño noblea onela izandu zan. Baña arentzat ori guztia zer zan? Gutxi edo ezer ez. Bada Jainkoaren enpeñoak estuago ziran, ta ezin geiagoraño estutzen zuten. Bere Jesus maitearen Biotzeko Ispillu dibinoan bere burua, edo anima ikusi, ta ondo ezagutzen zuen. Aren Milizia sagraduan lazki peleatu bazuen ere, Jaunari zor zionaren aldean, zer zan? Infernu guziaz, munduari, ta pekatuari gerra bizia ainbeste urtean egin ziela, ta orien damu gorrian bere Semeakin beti egingo



ziela, ikusten zuen. Orregatik San Pablok bezala, baziekien Bitoria orri zegokion justiziazko Koroa soguru zeukala. Beste aldetik Jaunaren esku liberaletik bere animan, da ainbeste doai, ta faboretan artu zuen sari ugarria begiratu, ta bere esker oneko biotza txit lotsatua geratzen zan.

Zeruko fabore estimagarriz betea zegoen: Ignaziok, eta bere Konfessoreak zioten, orien milla partetatik bat ezin esan edo konta zitekeala. Ainbeste urtean, Etxe santu onetatik asi, ta ibilli zan leku guzietan, da ainbeste urtean, Ama Birjiñaren, da onen Seme dibinoaren, ezin kontatu ala fabore, ta erregalo, agiri, edo aparizio: ainbeste zerurako igoera, arrobo, ta estasis: ta zortzi egun osoetako raptu miragarri jakiña, ta aren gisako beste asko: ainbeste profezia, promesa, ta milagro: Zeruko glorian betiko sartu baño len, lurreean deseaten zituen iru fabore prinzipalak, Ejerzizio santuak Kristoordeakontzat kanonizatuak, bere Erregla santuak egiñak, bere Konpañia, ala Jainkoaren aoz, edo Aita Santuak, nola Trentoko Konzilio osoan Espiritu Santuaren argiarekin konfirmaturik zekuzan: Erregalia bakarra: bada beste Relijio santuk orrelakorik duen ezta kigu.

Ignaziok bere Seme santuak ikusten zituen munduaren lau parte, ta urrutietan egaka, edo milagro bezala sartu, ta Jesus-en Izen adoragarria, ta onen fede, ta lege santua erakusten, ta ainbeste milloio anima, Santu Xabier-en ondoren Indietan, da leku guzietan irabazten. Jainkoak errebelatu, ta Ignaziok esan zuen, orien ondorengoak txit anima asko Jaunari ekarriko ziozkatela. Santuak ikusten zuen, zer mirarizko birtuteak ainbeste urtean beregan geitu zituen, eta guziak Jaunaren doaiak zirala: orien zimendu edo umildade ondogabea, Fede bizi, Esperanza firme, ta Karidade ederra: Jesus-en da Ama Santisimaren bere biotz guztiko amorio paregabea: gure ongilleen esker on edo agradezimentu neurrigabea: mortifikazio, ta penitentsia izugarriak, ta bere inklinazio gaiztoen kontrako, ta demonioen gañeko poderio soberanoa, deabruak esan arteraño, Ignazio baño etsai andiagorik etzutela.

Oriekin batean, beste prodijio ezin erraz esan, edo konta ditezkeanak, ta batez ere bere Azpeitian animen onerako egin zituenak. Au eskribitzen dedan eguna Korpus biaramona da, ta erdiko kalean egun egiten dan bigarren Prozesio, ta Festa alegrea Ignazioren, edo Jaun Salomon Pazifikoren triumfoa da. Jesus biotz guztien Jabeak bere Biotzeko Ignazio autetsi zuen, Azpeitiko pakegille, ta Santisimoaren, da Miserikordiaren debozioa aurreratzeko. Esan oi da, Santuak Erromatik Bulda bialdu zuela. Orañ Minerba, edo Sagrarioko Komunio jenerala, ta Jesus-en Biotzeko Ejerzizio debotoak, guziak egun batean txit ederki egiten dira.

Azpeitian anziñako esana da, erdiko kalean anziñatik ziran keja, ta aserre, edo auziak Santuaren zeloak sustraietatik atera, ta kendu zituela. O Ignazio paketsu, ta Jesus Dibinoaren Bitarteko poderoso! Iñoiz ere baño egun oietan, zure Azpeitian, da erri oietan zeruko pakearen bearrago gera. Askoren biotzetatik Jesus onaren pakea urruti dabill. Pakea bear degu; baña ez mundu ero itsuak, baizik Jesusek berak bakarrik ematen duen pakea. Guk zure etxe onetan au eskatzen dizugu: Pake santu au zuk ere Jaunari eska zaiozu, ta berak zugatik emango digu. O Jesus maitea! Zu zera gure Bidea, Egia, ta Bizitza. Bide ori, Egia ori, ta Bizitza ori, zure Pake gozoarekin bear degu, ta eskatzen dizugu. Zure Ontasunak ezin ukatuko digu: ala Erri oietako zure pakea betor betiko. Amen.



## AMABOSTGARREN §.

### Aita S. Ignazioren eriotza santua.

Jaunaren amorezko esan diran enpeño ta marabillen artean nekez txit Ignazio bizi zan, ta ezin geiago ala estutzen zan. Zer esan, edo zer egin etzekien: aren biotzeko su biziak bere zentrorra igo nai zuen. Zeruko amore miñez gaxo zan, ta ill bear zuen. Lurreko destierroan zeruko libertadea nai zuen: gorputzeko karzelan kateakin preso zegoen; eta linbo onetatik Jainkoaren argi, ta arpegi ederra klaro ikustera joan nai zuen. Alere Jainkoaren borondateaz añ bat egiña zegoen, non ez ill ta ez bizi, ezpada Jainkoak nai zuena bakarrik gauza guztien gañean Ignaziok beti nai zuen. Anima gutxitan bear bada, Ignaziogan bezala pribilejio miragarri oiek biak arkitzen ziran.

Bata: Jainkoari bere biotza agindu zion ezkerro, aren begietan, ta bere santidadean, beñere gelditu gabe, beti aurrera, ta egunoro obeto, Santuak aitortu zuen bezala, zeruko bidean ibiltzea. Bestea: bere azaña, eta egiteko guzietan, Jainkoaren gusto, atsegin, edo borondatearen neurria betetzea. Ala Ignazioren amorio puru, edo nasgabearen finezarik estimagarriena, A. Lainez laztanari esan ziona zan: seguru ta bertan zerura bear zuela Ignaziok jakin, da orregatik ere Jainkoaren gloriako egitekoren bat artzea, Jainkoak nai bazuen, bere salbazioaren irriskuan bazan ere; zeruko gloria utzi, ta Jaunaren egiteko ori artuko zuela. O Ignazio bakarraren suz ta garrezko balentiarik gloriosoena! O amorio dibinoaren indar poderoso! O desenpeño paregabea!

Biotzen Jabe Dibinoak Ignazio-rena ondo zekuzan, eta onen pelea latzen sari, edo koroa prest zeukan. Jaunaren borondateko erlojuan ditzazko orduak eman nai zuen: da Ignazioren deia zeruan aditu zan, edo Juez justuak gloriarako sententzia Ignazioren fabore eman zuen. Lenagotik noiz, ta nola lurreko karzelatik libratu bear zuen, zeruko berri on deseatuak artu zituen, ta biotzeko atsegiñez beterik arako sosegu andian prestatu zan. Fruta gozo txit eldu sazoirik ederrenean arbolatik erorteko zorian bezala, Ignazioren anima birtutez kargaturik, Errege dibinoaren maiean presentatzeko zori onean zegoen. Zerutarrak aren zall ziran, ta beren artean isusi nai zuten. Ignazioren pelea, balentia, ta bitoriak ikusten zituzten, ta bere meritu andien zer koroa nola prestaturik zeukan.

Jesus maitearen, da Ama Birjiñaren fabore, ta erregaloen artean azkeneko gaitzak eman zion.

Santa Teresa gloriosari Jesus bere Esposo Dibinoak gero, gure Konpañiako etorkizun, da marabillen berri onak emañ ziozkan bezala, lenago Ignaziori guziak klaro agertu ziozkan. Iltzeko gaitzak artu zuen. Azken gaitz ori Medikuak ezertan etzeukaten. Baña Ignaziok, nola goiko berri obeak, ta seguruak zituen, Aita Juan Polanco bere Sekretarioa artu, ta Jeneralak bezala, gauza guziak ederki zuzendu zituen, ta laster ill bear zuela adierazo zuen. Denbora luzean askok ziekien bezala milagro z bizi izan zan, ta begiz gero ikusi zuten Medikuen esan guziak egin, da ill arte-raño obediente, umillak bezala erremedioak artzen zituen. Baña Jaunaren sierbo fiela bezala aren gloriako atsegiñetan sartzeko, Sakramentuen soñeko, edo estola janzitzeko, Eleizakoak txit denboraz artu zituen. Jaunaren eskuetan osoro jarri, ta aren pake gozoan bere orduaren begira zegoen: zeruko glorian baizik pensatzen etzuen.

Santua txit argala sentitzen zan, da nola zeruko orduaren berri ziekien, iltzeko bezperan Sekretarioa deitu, ta esan zion: Maisu Polanco: nere izenean Aita Santuaren oiñetara zoaz; eta bere bendizio, ta Barkazioa nerezat, eta beste Padre batentzat eskatu, ta esaiozu: zeruan Jainkoari Beragatik obeto erregutuko diodala, lurrean beti, nere buruak aztu ta badere, egin dedan bezala. Aita Santuak Ignazio bere estimatuaren pelgroagatik txit pena andia artu zuen: eta Polancori bientzat Bendizioa eman zion. Bigarren ori uste zan, Aita Lainez izango zala; bada gaizki; ta txit estu zegoen; baña ori etzan, baizik Aita Dotore Martin Olabe, orduan sendoa bazegoen ere, laster ill bear zuena. Ignaziok ori zerutik ziekien. Dotore onek Ignazio pobreaki Alcalan lenengo limosna eman zion, ta laster zerura joateko, Santuak lagundu, ta atea idiki zion: andik amazpi egunera Santuaren ondoren zerura igo zan.

Zeruko fabore, ta rebelazio oien artean txit beregan, ta barrenkoi zegoen Ignazio, edo munduan ezpazegoen bezala zeruan bizi zan. Jesus ta Ama Birjiña bere anparo bakarra zituen, da besteren bearrrik etzuen. Bakarra, ta isilla gizonen ustean; baña beti bere Jainkoagan ditxa ta erregaloen artean zegoen. Zer Ama Semeen bisitak, oitu nola? Zer kolokio dibinoak! Jauna esaten zion: nik lurrean zer egiñik eztet, zeren Zu bakarrik nai zaitudan. Ez lurrean, da ez zeruan, nik zer det, Zu baizik, zer deseatu? O Jauna! ta mundu guztiak Zu ezagutu ta amatu bazindu! Zure amorioa indazu, ta orrekin kontentu, ta txit aberats izango naiz. O nere Jesus, nere amore guztia! Zure onra, zure gloria, zure amore Santua beti nai det. Zu bakarrik amatu nai zaitut; eta amorio onen beste pagurik, zure



amorio baizik nai ezte. Zure eskuetan nago, Zuk nai zunean emendik joateko. Konpañia santu au ezta nerea, ezpada zurea: au, ta nere Seme santuak zure kontura lagatzen ditut. Orien anparo dibino bakararra Zu zera. Ni beti emen ezin nagoke. Goazen bada, Jauna, goazen zure arpegi ederra ikustera.

Onela Ignazio Jainkoagan guztia sarturik zerurako prest zegoen. Bere soseguan, Aita Polancori iltzeko ordua laster zala adierazo zion: da mandatu bat emanda onek esan zion: Aita ta ori gaur edo biar. Eta Santuak: zenbat lenago, anbat obeago. Penaz beterik Polancok esan zion: Ai bada ta onen laster Aita? Santuak: Bai ene seme: Jainkoak ala nai du, ta nik ere bai: joan bear det. Alere laster iltzeko señalerik etzala Medikua zion, ta gau artan Polanco bere gelara, ustez seguru joan zan. Urrengo ostiral goizean Santua ikustera joan, ta iltzeko zorian arkitu zuen. Padre batzuei lasterka deitu, ta kandela bedeinkatua Santuak eskatu, ta eziorik bere eskuan zeukala, begiak zerura altxatu, ta Jesus onari begairatu, ta Jesus, Jesus; esanaz bere espiritua Jesus-en Biotzean sosegu eder, ta pakezko amorio santuan betiko eman zion, Jesus bere agonian bezala, Ignazio isillik bakarrik ikusi zan.

Iñori egitekorik eman gabe, Jesus onaren antzera ta onen Biotz, ta borondate osoan ezkutaturik, umildade, ta modestia miragarriena bere lagun zuela A. S. Ignazio iltzan. Bera glorian sartu zan puntuan, zerutik lurrean egin zuen lenengo prodijioa izandu zan, bere Konpañia-ren Boloniako Ongille bat, edo Margarita Grillo, Andre prinzipal, txit jainkozkoa bisitatzea; Au goiz artan lotan zegoela, ots andi bat sentitu, ta esnatu zan, ta gela guztia zeruko argi ederrez bete ikusi zuen: Gloriazko resplandore, edo edertasunaz janzirik Aita S. Ignazio agertu, ta txit klaro esan zion: Margarita zerura noa ni ta nere Konpañia zure kontura. Au esan, da Ignazio desagertu, edo ezkutatu zan. Margaritak zeruko konsueloz beterik kontu eman zuen: ta apuntatu ziran señaile guztiak Santuaren ill berriarekin lakin, da ikusi ziran. Aita Bobadilla kalentura gaizto batzuekin txit estu arkitzen zan: da Aita S. Ignazio ill zan oieronz arrimatuta bertan libre, ta osoro sendaturik gelditu zan.

Aita S. Ignazio zerura joateko, ezkutuan umill, da ixill egon bazan ere, Jainkoak bere gloriarako, Stitoriak diotenez, gloria andian, ill da bereala agertu zuen. Kardenal Taurasio, ditxa andiaz, Santua il zanean onen gelan arkitu zan, da Erroman alde guzietatik ospe, edo fama banatu zan. Aita S. Ignazio begiak itxi, ta Semeak negarrari eman zioten, penaz batetik, emezurtza tristen gisa, eta pozez bestetik, alako Aita amorosoa, ta Bitarteko añ poderosoa zeruetan zeukatelako. Gorputz santua idiki, ta

Anatomistak arriturik geratu ziran. Gibela arri leor gogor bat egiñ ikusi zuten, da orren zañean iru arri zeuden: urdalla, ta estomago guztia betiko bere mortifikazio gogor, ta tratu gaistoakin, txit estutua, edo zimurtua: milagro zala bizitu zala esan zuten. Ori lenagotik Egiak, eta beste askok ziekiten. Aita Jainkoak bere mirarietarako aren bizia gorde zuen. Aita S. Ignazio irurogei ta bost urtekoa ill zan, edo zerura joan zan.

Erromako jendedi andiak, Kardenal, da beste prinzipalak Gorputz santua yeneratzera zetozen: Erlikia estimatuzat aren gauzak bata, eta besteak artzen zituzten. Gorputza txit nekez gorde, edo libratzen zan: deboto guzienzat egun bian agirian egon zan: ziranak Santuaren gauzaren bat, edo ari ikutua zeramaten: argatik ainbeste munduko lekutan Erlikiak oi dira. A. Palmiok Jainkoa alabatzeko Ignazioren birtuteen gañean Sermoi eder bat egin, da Gorputz santua debozio geiegiak puskatzeko peli-groagatik, bere soñekoakin kaja batean, Aldare nagusiko Ebanjelio aldean orduan paratu zan. Kardenal Belarmino, ta Baronio, ta onen Maisu S. Felipe Neri askotan Ignazioren sepulkrorra etorri oi ziran. Arrezkero Kolateral berri, edo Aldare partikular, Erroman omen dan ederren da baliosoena Aita S. Ignaziok du: aren Gorputz estimatua an beneratzen da. Jaiotetxe onetan, gauza andi ta preziosoa bezala Eskuko beatz bat Santuaren Biotzean, da txit ederki apañdua Kapillan daukagu.

Emen Loiolan Ignazio jaiotzen lekua bezala, Erroman zerurako utzi zuen, edo iltzan gela, Oratorio eder egiñik dago. Jainkoaren adiskide maite erregalatu batek Gorputz santua aldatu bear zan bezperatik, aren gañean Aingeruen musika txit suabe bat, eta kanta gozoak enzun zituen: gau artan, da urrengo egunean, Gorputza bere Aldarean paratu zan artean, Jaunaren, da Ignazioren alabanzak kantatzen Aingeruak egon ziran. Gero izar eder guziz argiak Gorputzaren gañean ikusi ziran. Jesus maitearen Obiagatik Isaias Profetak esan zuen, Gloriosoa izango zala: *Et erit sepulchrum ejus gloriosum*. Pribilejio ori bera Jesus onak bere Ignaziori eman zion. Nongo Erregeren sepulkrorik zeruko Izar ederrakin apañdurik, Aingeruen musika, ta betiko milagro onaturik, Santuarena bezala munduak ikusi du? Onek bere eriotza ezkutatua nai izan zuen: Jainkoaren gloria ta bere umiltasuna beti billatu zuen. Orregatik zeruak bere argi ederrak irazaki zituen, Ignazio nor zan, ta onen gloria, ta alabanzak mundu guziari klaro erakusteko.

Loiolako Aita S. Ignazio nor, edo nolakoa zan, jakin nai badezu: galde S. Felipe Neri bati, S. Karlos, edo S. Franzisko Sales bati: galde Santa Teresa, ta Santa Magdalena bati: galde gure Españako Maisu miragarri Santu, Juan de Avila, ta Luis Granada, Konpañia ezker izandu diran





Santu, ta Erljiioetako Autoreai. Galde Aita Santuai, Kardenal, da Obispoai: Galde Erregeai, ta Erreinoai ta Ignazioren marabillak, eta alabanzak kaburik eztuela, klaro ikusiko da. Orregatik, Erromak bear bada ikusi duen solemnidaderik ederrenarekin, S. Isidro Atxurlariaren Bizitzan kontatu degun bezala kanonizatu zan. Azkenik galde Isabel Pobar Beneragarriri: Aita San Ignazioren txitez biotzetik debota zan au: Santuagandik nai zuen guzia alkanzatu oi zuen: Onek Kalatorasko Santo Kristo milagroso guziz famatua ikusteko, ta adoratzeko deseo biziak zeuzkan. Inñolako moduz ezin ori bere senarragandik logratu, ta bere San Ignazio mai-teagana biurtu, ta beste faboreen artean konfianza guziaz eskatu zion, arren Santo Kristo ori beneratzeko grazia edo bideren bat eman ziozala. Orduan A. S. Ignazio zerutik etorri, ta txit glorioso, ta amorosoa bere aurrean ikusi zuen, da puntu artan bere gelatik Kalatorasko Santo Kristoaren oñetara aldatu zuen: orduerdi bat, Jaun Soberanoa adoratzan, ta Jesus-en Biotzeko odola, ta erregaloak gustatzen an iduki zuen: ta Santuak Jaunaren gloriagatik Isabel ditzosa oni egin zion mirari onegatik, Kalatorasko Jaun dibinoaren benerazioa, ta amorioa txit geitu zan.

## AMASEIGARREN §.

### A. S. Ignaziok bere Loiolan egindako Milagroak.

Santuaren gloriak Libru andietan ere, nork konta ditzakean ezta. Jainkoak esanik dauka: Ni glorifikatzen nauena, nik glorifikatuko det. Nola Ignaziok gauza guzietan Jaunaren gloria billatu zuen, ala Jaunak Ignaziori guzian bere gloria eman zion. Santu milagrosoen artean A. S. Ignazio txitez milagrosoa beti izandu da. Prodigio mota guziak, ta alde guzietara miragarriak, bere Relikia, bere firma, edo letra, bere medalla, imajiña, edo Estanpakin egin ditu. Munebregan Aingeruak pintatu zuen San Ignazioren Imajiña zelebratuak, ill bi baño len, eun da geiago Milagro egin zituen: eta beti egiten ari da: eta orrela beste Imajiña famatu askok. S. Ignazio bizi zala, Santu Xabier-ek berekin zekarren Aitaren firmak seieun da geiago milagro egin zituen: Ignazioren lanparako olioak, ta aren gauza guziak ezin kontatu ala milagro egin dituzte.

Gaitz andi guzien artean, aur egitetik iltzeko zorian zeuden andreen-tzat, A. S. Ignazio Bitarteko txit amorosoa beti izanda. Orañ eun urte Autore batek zion, Ignaziok bost milla milagro egin zituela: arrezkero egiñakin amar milla izango dirade. Beste askori eskuak, besoak, oñak, ta ill askori bizia Santuak eman die. Gorputz txit askotatik deabruak bota izan ditu, ta orobat etxeetatik. Baña oriek, ta ezin kontatu alako beste milagro guztiak ezer ez tira, egiazko animen konbersioetan Ignaziok eta bere Semeak ainbeste milloio anima deabruen zarpetatik libratzean munduan egin diran milagroen aldean. O Ignazio era guzietara miragarria! Orañ zure Azpeitia edo Loiolako Marabillak konta ditzadan.

1.<sup>a</sup> Eun urte bezela da, Etxe santu onetan, da Ostegun Santuko Prozesioan egin zuen fabore, ta zeruko argi ederrezko milagroa, ta txit agiria izandu zan. Don Franzisko Latenta Etxe onen kontua zeukana Eleizak bisitatu ta etorri zan: loak txit tentatu, ta gauerdiko Prozesioaren kontu gabe, oiera joan zan, ta etxeako orobat. Guztiak lotan zeudela, Prozesioa Enparango zubian igoratzean, an zijozanen beren biotzetako atsegin andiaz, Etxe santu au alde guzitik zeruko edertasun argiaz beterik ikusi, ta miretsi zuten. Don Franziskuri goizean askok galdetu zion: ainbeste argi eder nondik, edo nola batu zituen: bada inñoz ez bezala, su eder miragarriaz Etxe guzia apañdurik egon zala. Onek lenengoan sinisten etzuen: baña nola benetan eskerrik asko guztiak ematen zioten, ta Etxeko guztiak



lotan zeuden, Ignazio, Jaunak bere Etxean onratzeko egin zuen milagroa zala ezagutu, ta Obispo Jaunak aprobatu zuen. Aita Joan Baptista Santiago Azkoitiko Erretoreak Milagroaren Pintura andi bat eragin, ta guziak ikusteko Etxe santu onetan paratu zuen.

Urrengo Ostegun Santu gabea, Azpeitiko Prozesioan, da Ignazio-aren Etxean Jainkoa onratzeko, Don Franziskuk leio guziak, ta tellatura-raño bere alegiñaz argiz bete zituen. Adiskideak asko alabatu zuten; baña zioten, lengo urteko arekin zer ikusi etzuela. Argi asko baziran eretxit gutxi ematen zutela: eta lengoak, zerukoak bezala, Etxe au guzia era bate-ra, edo berdin betetzen zutela.

2.<sup>a</sup> Azpeitian gizon bat elbarritua zegoen, edo perlesiak illa bezala: sei illabetea ezin mobiturik egon zan. Fede bizi bat artu, ta A. S. Ignazio-gana biurtu zan. Osasuna logratzeko Nobena bat Kapilla santu onetan egitea agindu zion: da lanparako olioaz gaitza zuen, edo illa zegoen alderdiari eman, da erremedio santu onekin seigarren egunean alde ori txit piztu, ta indarsu ikusi zan: eta milagro onen eskerrak ematera etori zan:

3.<sup>a</sup> Motrikun gizon bat iltzeko zorian oñetako gaitz portitz batekin zegoen: da al ziran erremedioak alperrik egin, da oñazez ill bear zuen. Umore gaistoak oñak erre ta llagatu, ta gau ta egun sosegurik etzuen. Erremedio guztiak utsak ikusi, ta A. S. Ignazio Bitarteko artu, ta osasuna eskatu zion: da onen lanparako olioaz eman ta, zeruko erremedioak bezala, osoro sendatu zuen.

4.<sup>a</sup> Joan de Egibar Anzuolako Bezinoa luzaro txit oaturik egon zan. Iñon al ziran erremedioak asko etzirala, zanko bata ausi zuen, seguru osatzeko. A. S. Ignaziori biotzetik deitu, ta onen Kapillan Nobena baten promesa egin zion, ta Santuak puntu artan milagro klaroaz sendatu zuen. Gaitz ta oñazeak akabatu ziran, da Egibar promesaz aztu zan. Baña Santuaren abiso eragillea laster sentitu zuen. Andik egun batzuetara milagroaz sendatutako oñ artan, oñaze bizi batzuek eman zioten. Bere kulp, ta zeruko kastigua ezagutu zuen, da bereala beste milagroaren billa Etxe santu onetara etorri zan. Txit argal, da zaldiz etorteko indargabe zegoen, da orra non Loiolako zubian zaldiak bota zuen, Oñaze biziak, eta gaitza gaitzaren gañean, Santuaren faboreak andiago izan zitezten: Ori biotzetik eskatu ta bertan indar da asmo andi bat artu zuen: ta oñen faltan, zekartzien muleta biak utzi, ta ibiltzen asi zan. Bere oñen gañean onara etorri, ta milagroaren señaletan muletak A. S. Ignaziori emen utzi, ta txit kontent, ta deboto Nobena egin zuen.

5.<sup>a</sup> Enparango Errotan mutiltxo bat biotzeko miñ edo alfereziaik egunoro persegitzen zuen. Gaitz orrezaz guziak penatzen ziran: da Andre

prinzipal baten debozioak A. S. Ignazioaren Relikia bat aurrarentzat logratu zuen: au ikutu orduko gaitzak larga zion; baña milagro betiko klaro-arekin; bada Erlikia kendu orduko gaitzak ematen zion. Azkenik Kapilla onetan Nobena egin, ta osoro ta betiko libratu zan eria, ta Relikia kendu ta ere gaitzak artzen etzuen.

6.<sup>a</sup> Aldakaitz, Loiolako Etxe onetan beste mutil bat eriotzko gaitz batekin iltzen zegoen. Doña Maria Ignazia Izagirre, ta Loiola Etxe santu onetan bizi zanak ori jakin, da Santuaren sillako piska bat txikitu edo auts egin, da ur gutxi batean eriarri eman zion. O mirarizko, edo zeruko botikako edaria! Ori artu zuen puntuan osasuna sendoarekin arkitu zan.

7.<sup>a</sup> Andik denborara mutil ori, A. S. Ignazioaren enpeño ta prodijio berrietarako, gaitz andi batekin itsuturik gelditu zan. Desditxa au gurasoak txit agitz sentitu zuten. A. Diego Ganboak konsolatu zituen, da esan zien: Ea konfianza andi bat ar ezazute: bizia len eman zionak, bista orañ eman diozake. A. S. Ignazioaren eguna zan, ta onen debozioa pistutzeko, besteetan bezala, emendik janaria bialdu, ta itsuari esan zioten: ea katillu salda ar ezazu, ez lurrekoa, ezpada zeruko erremedioa bezala, zeren Santuaren etxekoa dan. O Ignazioaren marabilla! Aurra salda artzen, da begiz ikusten asi zan, da bista klaroa geroz izan zuen. Ignazioaren onran eman zan limosna, zeruko Relikia egin zan. Lenago esan degun sillan A. S. Ignazioz predikatzen omen zuen.

8.<sup>a</sup> Pedro Korta Urrestillako Bezinoa ankako minez luzaro txit estu egon zan. Alperrikako erremedio asko egin, ta beren oñen gañean ezin zegoela guztiak zekusten. Bere oñazeen artean, Loiolara etorteko debozioak eman zion: txit nekez bazan ere, Santuario onetara etorri, Meza batzuek enzun, ta orduan oñaze iñoiz baño biziagoak eman zioten. Aita S. Ignaziori txit estu ta biotzetik alibioa, ta osasuna eskatu zion, da onek aditu zuela, bereala ezagutu zuen. Jaiki zan bertan, da Santuaren faborez bazebillen. Jauna alabatu, ta milagroa publikatu zuen: da gaitzik sekulan izan ezpazuen bezala txit kontentu bere etxera biurtu zan.

Ignazio Gaztañondo, Urrestillako Barberoa eskuiko eskua sortu, ta ezin baliatu zala, luzaro egon zan: iñon ziran alegiñak egin, da erremediorik etzuela Medikua etsi, ta utzi zuten. Baña lurrean ezin zana, zeruan laster arkitu zuen. A. S. Ignazioaren prodijioak ikusi, ta onegana biurtu zan. Bere Etxe santu onetan Nobena bat egitea ofrezitu zion: emen egun batean fede ta konfianza andiaz bere eskuko erremedioa eskatu, ta Urrestillara zijoala, eskua libre sentitu zuen: batera, ta bestera erabili, ta puntu artan, alakorik izan ezpalu bezala. Santuaren faborez, eskua sendo betiko gelditu zan: da bere ofizioa, nai bezala, aurrera egin zuen. Erri guzia,



lengo gaitz andi luzea, ta oraño go osasuna ikusi, ta San Ignazioren milagro onekin arriturik gelditu zan.

10.<sup>a</sup> Segurako Doña Maria de Berasiarte gaitz andi batek artu, ta etsirik Medikua utzi zuten, da agonian zegoen. Gurasoak beren alaba añ estu ikusi, ta gaitz guztien erremediora, edo Aita S. Ignaziogana txit biotzetik biurtu ziran. Osasuna ematen bazion, beren alaba Etxe santu onetara Nobena batean ekartea ofrezitu zioten. Milagro ikusgarria, ta bertan klaro ikusia! Iltzen zegoenak begi alai argiak idiki, ta puntu artan indarsu izketan asi, ta len ezer ezin jan zuenak, orañ gogotik jan, da bertan sendo arkitu zan: eta Gurasoen promesa kunplitzera, Etxe santu onetara pozik etorri zan.

11.<sup>a</sup> Ignazio Mendizabal, Villarreal-ko Semea bost urtean baldaturik egon zan: desditxa triste onetan, arrastaka, ta belaniko eskuaz lurrean baizen mobitu ezin zan. A. S. Ignazioren esperanza osoan Nobena bat egitera onara ekarri zuten. Sei garren egunean oñaze txit bizi batzuek eman zioten, da azken egunean sekulan baño estuagoak. Negar, da deadar, ai, ta adia tristeakin Kapilla Santuan zegoen. An zegoen Padre bat lastimaz eria konsolatza joan, da oni txit estu eldu, ta jaiki zan: aren besoetan zegoen, ta esan zion: Aita Aita larga: oñazeak joan dira: eta bera bereala ariñ ibiltzen asi zan, da lengo gaitz andi luzearen arrastorik gabe. Len arrastaka zebillena añ ariñ da sendo ikusi, ta San Ignazioren milagro andi au pozik kontatu zuten:

12.<sup>a</sup> Santuaren Otaban, Kapillan gabaz asko gelditu oi ziran. Oien artean bi deabruak itsutu, ta pekatu itsusi bat egitera zijoazen. Baña Santuaren, an zegoen Imajiña bat beñoan ikusi zuten, suz ta garrezko errañu edo raio biziak bien kontra botatzen zituela: arriturik uste zuten Jaunaren aserre guztia aien kontra zetorrela: ta pekatuko asmo gaiztoak utzi, ta damuz illik bezala geratu ziran. Santua Bitarteko artu, ta Jainkoari barkazioa eskatu, ta negarrez kulpa itsusi ori bertan konfesatu zuten. Izugarrizko milagro au Aita Diego Ganboa birtute, ta estimazio andikoari penitente oriek kontatu zioten: da onek geroz Imajiña orren benerazioa, zeren milagrosoa zan, guziaz enkargatzen zien. Imajiña ori, Kapilla santuan sartu baño len, ondo agirian, da ikusten dan lekuan dago.

13.<sup>a</sup> Azkoitiko mirari eder batekin Loiolako milagroak koroatu nai ditut. Azkoitian mutil bat txikitatik elbarritu, ta Hospitalean oaturik zazpi urtean egondu zan. Aita Ganboak lastimatu, ta bear zuen janaria egunoro bialtzen zion da bere kariñoz Eskola mutillak ari irakusten, da Meza laguntzen erakustera bialtzen ziozkan. Askotan berak ikustatzen zuen, da Ama Birjiñari, Aita S. Ignazioren bitartez osasuna eska ziozala, esan oi

zion. Egun batean zeruko argi bizi batek Aita Ganboa mobitu, ta mandatu egin zion, berarekin Loiolara etortera anima zedilla. Ni ezin mobitu naiz, zion mutillak baña Aitak agintzea asko da. Aita S. Ignaziok egin nai zuen milagroak esperanza eman zion.

Au esan, da len bestek nekez erabiltzen zuen mutilla, erraz janzi zan. Padreak emandako muleta birekin, ta bestek lagunduaz bidean jarri zan. Santa Kruzko aldapa geldika igaro, ta Loiolako zubian atsedean zuen. Padreak esan zion: Santua lagun dezula, ea muleta batekin ibilli zaite. Ala asi, ta Etxe onetan gora, Santuaren faborez, ta pozez igo zan, da indar, edo belaun, gozo ohea beti sentitzen zuen. Kapillan sartu, ta orazioa soseguz egin, da bere gaitzetik libre zegoela esan zuen. Indar miragarriaz jaiki, ta muleta gabe Aitari Meza lagundu zion: Aita S. Ignazioren osasuna milagrosoan Jainkoa alabatzen, arin, da saltoka Azkoitira biurtu zan.

Muletak emen utzi zituen, da bata gordetzen da. Bestea, milagro au ikusi, ta Azpeitiko Señora baldatu batek eraman, da milagrozo osasuna, ta indarra Santuak eman zion, da Relikiatzat gorde zan.

Laburgoan, edo abrebiaturan badere, nere Aita S. Ignazio gloriosoa oiek dirade zuk emen egindako milagroren batzuek. Zuk mundu zabalean egindako guztiak, liburrik andienetan ere kabitu eztira: illak piztu, edo resuzitatzen, gorputz, eta animetatik deabruak botatzen; da gaitz mota guziak sendatzen, zure debotoai mirarizko faboreak egin dieztezu; baña geiago, ta andiangoak dira, infernu, edo eriozko pekatutik ateratzen, len da gero, alde guzietan zuk egin dituzunak. Orañ bada nik ere milagro andienetatik bat, zure onra eta atsegiñik andienekoa eskatu nai dizut; eta falta gabe fabore au egin bear didazu.

Zeruko milagro au zure Erri oietako pake santua da. Ez mundu zoroak ematen duena: ori gezur utsa da; ezpada Jesus paketsuak utzi, edo eman zigun egiazko bere pakea. Iñoiz ere baño, egun oietan zure Erri oiek onen bearrago dira. Pake ori gabe, aberatsen lurreko ondasunak ezer eztira: pobreak bere bearrean da pakean obeto bizi oi dira. Ondasun guziak gerra bizian baño, arto puska bat pakean obe da.

Azpeiti, ta Azkoiti zure Aitaren, da Amaren Jaioterri oiei, or goiko pake, edo zure gloria altu orretatik pakezko amorez begira zaiezu, ta zure Erritarrai pakezko Jerusalem eder orretako pakea guziaz alkanza zaguzu. Gure Nekazariak zer nai, edo zer bear duten, zuk obeto dakizu. Oiek beren alibioa, bear bezala billatzea gauza justua da. Baña bide gaiztoetatik, Jainkoaren ofensa, ta lagunen agrabioan, eta beren buruak galtzeko moduan, pekatu da, ta guzien kaltea.



Nekazariak beren bear, neke, ta Jesus onaren pazienziarekin, da orien Nagusi edo aberatsak, beren piedade, miserikordia, ta limosnakin Jainkoa billatu bear dute: eta guzien zerurako bide segurua au da. Nekazari garbi prestuak orañdaño ori gorde dute, eta aurrera ere, Jainkoaren grazian da pakean ondo bizitzeko, ori bera gorde bear dute. Pobreak eta aberatsak, txikiak eta andiak, Aita baten umeak gera. Batak bestea pazienzian sufritzea; batak bestea karidadean amatzea, ta Jesus-en pakean ondo ikustea da gure ditxa guzia.

Amoriozko lege santu onekin Agintariak, edo Justiziako Jaunak, eta Nagusiak gure Nekazari onak gobernatu bear dituzte. Nekazariak Jainkoaren, Kristo, edo Sazerdoteai, ta Justiziako Alkate, ta beste Jaunai, ta Nagusiai Jainkoordekoai bezala zor diote erreberenzia, obediencia, ta amorioa. Nekazariak Alkate, edo Nagusi balira, bakoitzak naiko luke, berari ori gordetzea. Bada Jainkoaren karidadezko Lege Santua, txiki, ta andienzat edo guzienzat bat da, edo berdiña. Onetan bada guztiok berdin ta pake santuan bat izatea, zure bitartez, o Aita S. Ignazio glorioso! deseatzan, da eskatzen degu, zuk bezala, Jainkoaren borondatea lurrean egiteko, ta zure Konpañian bera beti alabatzeko. Amen.

Zure Loiolako Etxe santu, edo Kolejio Errealean. Gaur Jesus-en Biotzeko egun, edo Ostiralean, Garagar illaren 6-ean, da 1766-garren urtean.

*Ditxa andiaz  
zure Seme txikiena eta umillena*

J H S  
A. K.

## AITA SAN IGNAZIORI BEDERATZI URRENA

*Beste debozioetan bezela onetan ere egun  
oietan abiso eta errega jakiñiak dira.  
Santuaren Aldare aurrean jarri, edo fede  
bizi batez Santua zu entzuteko  
konsideratu zure aurrean,  
ta ziñatu, ta Nere  
Jesu-Kristo Jauna &  
esan eta gero*

### EGUNEROKO ORAZIOA

Aita San Ignazio glorioso, Jesusen Kornpañiaren Fundadorea, ta nere Aita maitea; baldin Jaungoikoaren gloriarako, zure onrarako, ta nere probetxurako bada nik alkantzatzea Bederatzi-urren onetako eskatzen dedan grazia, alkantza zadazu Jauna gandik, ta ezperen nere eskari au zuzen ezazu, ta nere pensamentu, itz ta obra guziak zure biotzeko deseo guztira, zeña beti zan Jaungoikoaren gloriarik andiena.

### LENENGO EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure Fedeko Misterio sagraduak errebelatu zinduen, ta obra on guzien, ta salbazioaren Zeruko sustraia bezela gure biotzetan jositzea nai dezuna. Nik ofrezitzen dizut, Aita San Ignazioaren birtute guzien artean, aren Fede argi, ta bizia, zeñaz, Liburu Santu guziak galduko baziran ere, diran zure Misterio guziak Santuak sinistuko zituen, ta mundu guztiari zure Fede, ta legera erakutsi nai zion. Arren indazu, Jauna, zure Legeko gauzak ondo jakin, ta sinisteko, ta obeto gordetzeko bear dedan grazia, eta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudana zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

*Emen, Trinidad eguziz Santari Aita San Ignaziok zion amorioaren reberenzian, iru Pater noster, iru Ave Maria, ta Gloria, erreztatzen dira: eta gero*

### EGUNEROKO ORAZIOA

Aita San Ignazio, Santu andia, Jesus Zeruko Erregeak bere Konpañiaren Kapitana egin zinduen, ta kargu onek eskatzen dituen Aingeru guzien birtuteaz bere gloriarako, bear zan bezela janzi, ta apaindu zin-



duena: Txit atsegin det, nere Santa maitea, zure animako birtute, esan al baño andiagoen edertasun, ta gloriáz, ta deseaten det, mundu guziak zu ondo ezagutu, ta amatzea. Ta orregatik, arren alkanza zadazu Jaunagandik, zure birtuteai jarraitzeko, ta zuk bezela, Jaungoikoaren legea nere estaduan ondo gordetzeko grazia: zu bitarteko zaitudala, Ama Birjiñaren anparoan, ta Jesus guziz gozoaren biotzean, berak nai duenean eriotza on bat logratzeko, ta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudan mesedea, Jaungoikoaren gloriarik andienerako baldin bada. Amen.

*Emen fede, ta konfianza al dezun andienaz, Santuari nai dezuna eska zaiizu, eta gero esan*

### EGUNEROKO SANTUAREN ORAZIOA

Nere Jaungoiko guziz miserikordioso eta emallea. Bada ni naizan, ta dedan guztia zugandik det: esker onekoa nolerebait izan nai det: eta Aita San Ignaziok bere biotzean, ta aoan beti zeukan ofrenda onekin, zuk eman didazun guztia biurtu, ta zuri konsagratu nai dizut: *Ar ezazu bada Jauna, nere libertadea, nere memoria, entendimentu, ta borondatea. Nik dedan, ta naizan guztia, zure Majestadeagandik artu det: guztia, nere Jauna, zure borondateari biurtzen ta konsagratzen diot, onek gauza guzietan zuzendu ta goberna nazan, Zure betiko amorioa, zure graziarekin indazu, Jauna, eta onekin bakarrik aberats, ta kontentu nago eta besteren bearrik ez det.*

Orazio laburtxo au Aita San Ignaziok egin oi zuen, ta besteai eragiten zien; eta Konsagrazioko akto andi bat da, Jaungoikoari dan guzia batek emateko, ta txit probetxu andikoa.

*Aña. Similabo eum viro sapienti, qui asdi ficavit domum suant supra petram.*

*V. Amabit eum Dominus, et ornavit eum.*

*R. Stolam glorie induit eum.*

*Deus, qui ad maiorem tui Nominis gloriam propagandam novo per Beatum Ignatium Subsidio militatem Ecclesiam roborasti: concede, ut eius auxilio, et imitatione certantes in terris, coronari cum ipso mereamur in Caelis.*

Bigarren egunean eta besteetan orobat guzia egiten da, ezpada bigarren Orazioa, eta da urrengoetatik bat.

### BIGARREN EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure esperanzan zure adiskideai munduko ondasun guziak, ta ezeren falta gabe, bear zuten guzia promestu, ta agindu ziñieztena. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren Esperanza guzizko firme, zukan zeukana, zeña, munduko

persekuziorik andienetan aren biotzeko aingura segurua beti izan zan. Arren indazu, Jauna, nere salbazioaren Esperanza andi bat, zure grazian ondo egíñikako nere obra onetan seguratu, ta nere estaduan, zu obeto serbitzeko bear ditudan ondasunak; eta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudan grazia, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### IRUGARREN EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure Amorio santua guziori ainbeste agindu ziñiguna, zure mandamenturik andien, ta bearrena bezela, Zu gure biotz ta anima, ta indar guztiaz amatzeko. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren zurekiko amorio txitez irazakia, Serafin baten gisan Santua erretzen zuena, ta Zerura joateko baño ere, Zu obeto serbitzea naierazo ziona. Arren indazu, Jauna, zure amorio santu orren txingar bat, Zu nere biotz guztitik, ta gauza guzien gañean oraiñ, ta beti amatzeko, eta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### LAUGARREN EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, gure lagun urkoen karidade, ta amorioa, zure Eskolako diszipulo, ta adiskideen señaile ziertoa bezela, eman, ta agindu diguzuna, ta zureak nor diran, onetan ezagungo dirala, diozuna. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren Karidade guztiz bero, ta aundia, munduko guziak zure amoriozko garretan erretzen ikusi nai zituena, animak salbatzeko ainbeste egin, ta sufritzen zuela. Arren indazu, Jauna, Santuaren antzeko karidade egiazkoa, nere itz, eta ejenploaz, animen salbaziorako alegin guzia zure amorioz egiteko: eta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudan faborea, zure gloria, Santuaren onra, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### BOSTGARREN EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure pazienzian, dotriña, ta ejenploetan, bizitza onetako trabajuetan, zure Gurutze Santuaren, ta gure Zerurako bide erreala bezela erakutsi ziñiguna. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren Pazienzia miragarria, zure amorioz ainbeste kartzela, katea, ta persekuzio aiñ pozik eramateko, non ta zion mundu guziak zituen kateak baño geiago zugatik eraman nai zituela. Arren indazu, Jauna, zure espiritu ta indarra, nere bizitzako zuk nai dituzun neke, ta pena, pobreza, ta gurutzeak ondo eramateko, oriekin zure ondoren, zeru-



ko eskala bat egin dezadan; eta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudan mesedea, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### **SEIGARREN EGUNEKO ORAZIOA**

Nere Jesus guziz ona, zure amorioz, Orazioaren Zeruko Ejerzizioa zure bizitzan erakutsi ziñiguna, lurrean guk zeruko bizia egiteko, eta andik bear degun guzia erregutuaz erakartzeko. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren Zeruko, ta betiko Orazioaren Ejerzizio, zugandik aiñ ederki ikasi, ta mundu guziari erakutsi ziona. Arren indazu, Jauna, gauzarik onen, ta bearren au, zeña dan, Zu biotzeko erreguaz billatzea, ta arkitzea, ta Zuri beti, bear dedana Orazioan ondo eskatzea, ta Bederatzi urren onetan deseatzeten dedana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### **ZAZPIGARREN EGUNEKO ORAZIOA**

Nere Jesus guziz ona, zure biziko pauso, ta eriotzako pena, ta tormentuetan, nere pekatuen penitentzia egiten, ta nere bizioak mortifikatzen erakutsi ziñidana. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren arrigarritzko penitentzia, ta pasio guziaz gerra bizia egiteko espiritu, ta balentia. Arren indazu, Jauna, nere kulpa aundiai dagokien egiazko penitentzia egiteko espiritua, ta zure graziaz nere bizioak mortifikatu, ta erremediatzeko bear dedan indarra, eta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### **ZORTZIGARREN EGUNEKO ORAZIOA**

Nere Jesus guziz ona, munduan jaio ziñanetik Gurutzian ill arteraño Obedientzia mundu guziari erakutsi ziñiona. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean aren Obedientzia aiñ guztizkoa, non ta bere burua, ta bere Konpañia guzia zure Erromako Bikarioak Konsagratu zizun, Obedientzia guzian, ta beti zure borondatea obeto egiteko. Arren indazu, Jauna, nik ori bera, Santuak bezela egiteko, bear dedan espiritua, ta nere burua ukatu, ta zure borondate gozoa egiteko grazia, baita ere Bederatzi urren onetan eskatzen dedana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

### **BEDERATZIGARREN EGUNEKO ORAZIOA**

Nere ere Jesus guziz ona, zure Ama guziz Santa, San Juan Diszipulo maiteari enkomendatu, ta zure ta gure Amarik onena, onratzen, serbitzen, ta amatzen erakutsi ziñiguna. Nik ofrezitzen dizut Aita San Ignazioren birtute guzien artean aren biotz guztiko Ama Birjiña zure Amarekiko debozio, ta amorio paregabea, zeñiarekin Ejerzizioak eskribitzeko Zeruko Maestra au merezi izan zuen. Arren indazu, Jauna, zure Amaren egiazko debozio, ta amorio, Zeruko eskojituen señale dana, nik Zu, ta bera oraiñ, ta beti biotz guztitik amatzeko, ta Bederatzi urren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako. Santuaren onrarako ta nere onerako baldin bada. Amen.

AZKENA

